



**San Joan eta
San Pedro
festak:
Segura,
Olaberria,
Mutiloa**




**Aizkorriko
eguna
uztailaren 1ean**




**Idiazabalgo
eguneko
zentroa
Goierriren
eskura**

Jai giroan udari harrera



**UDA HAU ERE
ANTZIZAR
KIROLDEGIAN
FRESKATU EZAZU**

Eraikuntzako egurrezko materiala eskuragarri: habeak, solibak, tarima...



PITZADURA,
PIPI eta
HEZETASUNAREN
AURKAKO
TRATAMENDU
FIDAGARRIA



BERTAN S.L.
EGUR BILTEGIA

VACSOL - WR^R TRATAMENDUA EGURRARENTZAT

**OHOL ETA ALTZARIEN
TRATAMENDUA**



Ibai-Ondo industrialdea, 5 pab. 18 area

ITSASONDO

Tel. /Faxa: 943 163 102



Eragilea:

ARIN ERAIKUNTZAK S.L.

Informazioa eta Salmenta:

943- 49-38-73

Kalitatea

Diseinua

Paregabeko Ingurua

ETXEBIZITZA ADOSATUAK (SEGURAN)



arquimedia

Non zer

3: HAMABOSTALDIAN

NABARMEN: Kenduk
25 urte

8-11: Olaberriako jaiak.

12-13: Segurako jaiak.

14-15: Euskal Herriko dantza
txapelketak 25 urte.

16: Aizkorriko Lagunen
II. Eguna Zegaman.

17: Idiazabalgo Eguneko
Zentroa Goierriren
esku

18-19: Mutiloko jaiak

20-31: KRONIKAK

SEGURA,
LEGORRETA,
ATAUN,
LAZKAO,
ORMAIZTEGI,
ZERAIN,
ORDIZIA,
GABIRIA,
IDIAZABAL,
BEASAIN,
ZALDIBIA,
ZEGAMA.

32: DEBALDEKO IRAGARKIAK

33: KILOMETROAK 2001:

Aire libreko zinea.

30: FOTO ZAHARRA:

Segurarrak 1959an,
Santa Barbara
inguruko pinuak
garbitzen.



Urteurreneko ekitaldi ugari burutu dituzte

Kendu kooperatibak 25 urte

Segurako Kendu kooperatibak 25 urte bete ditu. San Joan aurreko egunak aprobetxatuz, ekitaldi ugari burutu dituzte. Ekainaren 15ean adibidez, bazkideak, bazkide ohiak, langileak eta bertaratu ziren lagun mordoskak ospatu zuten eguna. Lantokia barrutik ikusi eta azalpenak jasotzeko aukera izan zuten guztiek. Dantzariak, hamaiketakoak... eta Kenduren 25. urteurreneko liburua banatu zitzaizen. Ane Urdangarin Leturiak egin du Kenduren 25 urteotako historia-
ren labor bilduma.

Ebaketa-tresnak egiten ditu Kenduk. 1976ko urriaren 25ean, Lan Ministerio-ko Enplegu eta Gizarte Sustapene-ko Zuzendaritza Nagusiak onartu zuen Kendu Sociedad Cooperativa Industrial sozietatearen Estatutuak inskribatzea. 1997an, Zuzendaritza Batzordea Ampo kooperatibaren egoitzen bildu urte amaieran lehen fresa atera zen. 13 bazkiderekin hasi zen kooperatiba lanean.

Gaur egun 83 ditu.

Ramon Otaegi, Kendu Kooperatiba-
ren Bazkide Fundatzailea eta Lehenda-
kariaren esanetan, "barren-barrenetik
bizi izan dugunok baino ez dakigu zein-
nen nekeza izan den proiektu hau aurre-
ra eramateko eginkizuna. Lan egiteko
gogoia zuten gazte asko zeuden Goierri-
ko inguru bat bultzatzeko asmoarekin
hasi zuen adiskide talde batek. Oraindik
gogoan dut nola biltzen ginen etxe par-
tikularretan eta nola hitz egiten genuen
buruan genuen enpresa horri buruz. La-
guntzak lortu genituen, batzuk ezinbes-
tekoak, eta Kendu fundatu genuen, tal-
de-laneko izpiritu horri beti eutsi dion
kooperatiba".

45 langile ditu une honetan Kenduk
eta 53ra iristea espero dute Kendukoek.
Proiektu berriak martxan dituzte. Nabe
berria ere egitekotan dira orain, 2.100
metro karratukoa.

GOIERRITARRA HAMABOSTEKARIA Argitaratzailea: Goierritarrak Kultur Elkartea
Dorre-etxea, 1 (Postetxe gainean) 124 posta-kutxa Ordizia Tfnoa: 943 88 96 12 Faxe: 943 88 27 19
E-mail: goierritarra@topagunea.com

Zuzendaria: Loinaz Agirre **Maketazioa:** Mikel Albisu **Publizitatea:** Argider Mujika **Zenbaki honetako kronista eta kolaboratzaileak:** Joseba Telleria, Aitor Calvillo, Xabier Urteaga, Nekane Altuna, Edurne Albizu, Iñaki Gurrutxaga, Saroi Jauregi, Agurtzane Bikuña, Oihana Sarasola, Aitziber Murua, Mari Flor Mendizabal, Aimar Maiz, Iñaki Ugalde..

Fotokonposizio eta maketazioa: GOIERRITARRA. **Inprimaketa:** Gertu (Zubillaga 9. Oñati)
Tirada: 8.300 ale. **SSN:** 1132-0907 **Lege gordailua:** SS-926/89 **Frankeo kontzertatua:** 37/76
GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



**Eusko Jaularitzako Kultura
Sailak, Gipuzkoako Foru
Aldundiak eta GOIERRIKO
UDALEK diruz lagundutako
aldizkaria**

Aralako pistak aztergai

Mahai teknikoak osatzekoa da

Aralarko artzainek euren txaboletara joateko pistak egitea eskatu zutenik, nahikoa zer esan ari da ematen gaia. Azkeneko berrien arabera, pisten gaia aztertzeko, artzainek, mendizaleek, ekologistek, teknikariek, adituek eta agintariek mahai teknikoak osatu dute, Euskaldunon Egunkariak aurreratu duenez. Honela erabaki zuen Enirio-Aralar Mankomunitateak. Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritza eta Ingurumen Sailak ere begi onez ikusi du mahaia. Artzainak (EHNE sindikatuaren eskutik), Aralar Izadi talde ekologista, Gipuzkoako Mendi Federazioa, Ekos enpresa, Arantzadi elkarteak, Gipuzkoako Foru Aldundiko eta Enirio-Aralar Mankomunitateko ordezkariak osatuko dute mahaia. Alde guztiekin adostasuna lortzea da helburua.

Esan bezala, artzainek pistak egitea eskatzen dute, 20 kilometro, txaboletara autoz iritsi ahal izateko. Foru Aldundiak aginduta, Ekos enpresak txosten teknikoak egin du eta 15 kilometroko bide sare berria egitea bidezko ikusten du. Enirio-Aralar Mankomunitateak Arantzadi Zientzia Elkarteari eskatutako txostenak berriaz, Aralarren bioaniztasun eta oreka ekologikorako kaltegarritzat jotzen ditu pistak.

'Printze Txikia' itzuli du Patxi Zubizarretak

Patxi Zubizarreta ordiziarrak Printze Txikia ipuin famatua euskarara itzuli du. Antoine de Santi-Exupéryk 1943an idatzia da. Elkarlanean eta Salamandra argitaletxeek elkarlanean eman dute argitara. Haurrentzako narrazioa da Printze Txikia, baina ordiziarrak esan zuenez, helduentzako eginiko haur liburu bat da. Aurretik ere bi alditan euskarara itzulita zegoen Printze Txikia baina euskara "zaharkiturik" zegoen. Zubizarretak eta argitaletxeek, itzulpena moldatzeaz gain, Saint-Exupéry bere lana apaintzeko marraztu zituen irudiak bildu dituzte.

Joxan Ormazabalek 'Josebiñe' liburua kaleratu du

Idazle zegamarrak haurrentzako 'Josebiñe' liburua idatzi du. Josebiñerekin batera Afrikako mutiko bat dira protagonista eta amaiera triste da duen istorioa da, autobus batek zapalduta hiltzen baitira. Elkarlanean argitaletxeak argitaratu du liburua.

Aitor Perez zegamarra Ataunen irabazle

Ataungo XXXVII. txirrindulari proba Aitor Perez Arrieta zegamarrak irabazi zuen. Caja Rural taldekoa da Perez.



Aitor Oiartzabal CAFeko langilea hil da Washingtonen

Aldizkaria bukatzen ari ginela jakin genuen, Aitor Oiartzabal 28 urteko ordiziarra, Washingtonen hil zela. CAFeko langilea zen Oiartzabal eta Washingtongo lantokia ari zen lanean azkenaldian. Prestesta bilkurak egin zituen CAF aurrean.



GENERALI
Aseguroak

INAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20
☎ 943 88 87 02
BEASAIN



SIBONEY
una cristina olana

- × Zutikako solariuma
- × Estetika guztia
- × Lurrindegia
- × Pitxiak
- × Antizelulitiko tratamendua azkeneko teknikekin (endomasaje ultrasonikoa)

tel. 943 88 15 50
Joan Iturralde, 3 BEASAIN
mail: ac.olano@euskalnet.net
<http://members.es.tripod.de/siboney/>

iB&i-ONDO
AROTEGIA

Koltxoak
Somierak



Sofak,
altzari mazizoak
haritzekoak,
gerizekoak,
gaztainondoak

multisac
— SYSTEM —

☎ 943 16 40 40 faxa: 943 16 47 47
Poltsikoko telefona: 639 631 640
Antizar-Katea, 5 BEASAIN



*Ezkerreko argazkia:
eskuinean, Beñat
Urretabizkaia.*

*Eskuineko argazkia:
Garazi Lorenzo.*

Beasaingo eta Ordiziako igerilariak sasoi betean daude. Ikasturte amaiera honetan jokatutako txapelketetan emaitza onak lortu dituzte. Beñat Urretabizkaia beasaindarrak, alebin mailan, Gipuzkoako Eskola Kirolaren barruan, igerilari osoaren saria lortu zuen. Garazi Lorenzo ordiziarra, jubenil mailan, Gipuzkoako txapelduna da, igerilari osoena da.

● Beasaindarrak

Maiatzaren 19an, Antzizar Igeriketa U.E.ko igerilariak Zarautzen 'Zarautz Herria' saria jokatu zuten benjamin eta alebin mailako igerilariak. Emaitza hauek izan ziren:

ren: alebinetan Beñat Urretabizkaia 100 m. bizkar estiloan, irabazlea izan zen. Iñigo Arruabarrenak 6. egin zuen saio berean. Nesketan eta alebinetan, Irene Ezeizabarrena eta Elisabet Mendiak, 100 m. krol estiloan, beraien marka 3 segundotan murriztu zuten.

Benjaminetan ere bikain ibili ziren: Ruben Alonsok 2. egin zuen 100 m. bizkar estiloan. Ibon Soto ere 2. izan zen, 100 m. bular estiloan. Eneko Amondarain, Joseba Aldasoro, Itsaso San Sebastian eta Miren Alustiza, 100 m. krol estiloan, 4. eta 7. postuen artean gelditu ziren.

Goierriko igerilari gazteak indartsu

Gipuzkoako txapelketetan domina ugari eskuratu dituzte

Ekainaren 2an, aldiz, Ordiziako Majori kiroldegian, Eskolarteko Kirolaren barruan, Gipuzkoako txapelketak jokatu ziren. Alebin mailako finalak jokatu ziren. Beñat Urretabizkaia beasaindarrak 4 estiloetan parte hartu zuen. 100 m. tximeleta estiloan, 4. egin zuen; 100 m. bular estiloan 3., 100 m. bizkar estiloan 2. eta 100 m. krol estiloan 3. Beraz, igerilari osoena sarian, hirugarrena izan zen Beñat.

● Ordiziarrak

Garazi Lorenzok Gipuzkoako Igerilari Osoaren txapela jaso du. 12 urte ditu. 4 estilo-

tan egundoko markak egin ditu Garazik. Aurten Federatu mailan sartuko da Garazi eta Euskadiko txapelketetara joateko aukera izango du, eta Espainiakoetara ere bai. Denaren, lehenengo urtean esperientzia hartzea du helburu.

Ordiziar gehiago ere izan ziren lehian. Lazkaomendiko Alar Arruabarrenak bigarren postua lortu zuen, Imanol Ormaetxeak 4. postua eta Eneko Novok 5. postua. Neskak aurrerapauso handiak ematen ari dira eta Aina Ormazabal eta Sandra Agundez oso ondo aritu ziren.




Barandiaran ZERAMIKAK



- Igeltseritza lan mota guztiak
- Etxebizitzarako materialak, azuleju eta zoruak
- Bainugelarako tresna, hidromasajea, iturri eta gehigarriak
- Ikatz eta egurrezko sukaldeak

☎ 943 88 79 72 Senpere, 7 BEASAIN



MUJICA LIBURUDENDA

Kale Nagusia, 19
☎ 943 88 11 94
ORDIZIA

Euskal komunikazio esparrua babestu eta indartu behar dugu

Ez ditugu une gozoak bizi euskal ikuspegiaz dihardugun euskal komunikabideek. Egin, Egin Irratia eta Ardi Beltza itxita, Ttipa-Ttapako Jon Abril kazetaria auzipetuta, Euskal Herria irratia lizentzia legalik gabe, eta orain Euskaldunon Egunkaria eta Gararen kontrako eraso judiziala ezagutu ditugu. ETAr egin-dako elkarrizketa aitzakia, Euskal Herrian bertatik informazioa lantzen dugun komunikabideon jardun profesionala jarri nahi dute auzitan. Martxelo Otamendi eta Mer-

txe Aizpuruaren eta beraiek zuzentzen dituzten egunkarien kontra Espainiako Entzutegi Nazionalen jarritako ke-reilak informazioa eman eta jasotzeko herritarrek duten eskubidea urratzen du.

Gainera, ukaezina da bizi dugun gatazkan ETAre ikuspegia ezagutzeak daukan interese informatiboa. Horren adierazle dira aipatu elkarrizketak hemengo eta kanpoko komunikabideetan izaniko oihartzuna, eta alderdi eta instituzioen aldetik eragindako erreakzioak. Izan ere, informazio egiazko eta objektiboa eskaintzea ez da delitua, irakurle eta komunikabideek legez aitortua duten eskubi-

dea baizik. Elkarrizketa kale-ratzearekin ez da komunika-bide horien jarrera jakin bat azaltzen, eta irakurleak jakin-go du esandakotik bere iritzia eta ondorioak ateratzen.

Gertatutakoak, eta horren inguruan eman diren hainbat iritzik, Egunkaria eta orohar Euskal Herria esparru duten komunikabideak jotzeko eta isilarazteko asmoa erakusten dute, lehen beste komunika-bide batzuekin eta euskalgin-tzan diharduten hainbat era-kunderekin egin den modu berean. Horregatik guztion artean euskal komunikazio esparrua babestu eta indartze-ko premia dugu. Gure hiz-kuntzak bizi duen egoeran

Egunkaria zein euskalgintza-ko beste erakundeak amiltze bidean jartzeak euskarari eta Euskal Herriari kalte atzeraze-zinak eragin diezazkieke. Gaur Egunkaria eta Gararen txanda izan da, bihar euskal-gintza zein herri komunika-zioan dabilen beste edozeine-na izan daiteke.

Garaiz gaude elkarlana bultzatu eta euskal komuni-kazio esparrua artikulatzeko, presarik gabe baina loak har-tu gabe. Euskal komunikabi-deak ezinbestekoak ditugu. Irakur, entzun eta ikus itzazu.

*Jon Ordoñez, Pantxike Agirre,
Idurre Eskisabel (Euskaldunon
Egunkariako langileak)*

TOKI-ALAI Jatetxea

**Jaunartzeak - Bataioak - Ospakizunak
Menuak eta Karta zerbitzua**

Aramako Plaza

Tel.: 943 888 953

ARAMA



- ✓ Aholkularitza juridikoa
- ✓ Entrepresa zerbitzuak
- ✓ Aseguruak

GERTU ABOKATUAK

Tel.: 943 16 21 92 Faxa: 943 88 36 33
Kale Nagusia, 2 BEASAIN

URBITARTE tolare sagardotegia



Txotx denboraldia zabalik

Tel.: 943 18 01 19

Ergoiena Auzoa

ATAUN



GESTORIA BIOK Errenta aitorpenak egiten dira

**Goierrri, 12
behea
ORDIZIA**

943 88 44 00
943 88 12 58

RUGAZTIBI AHOLKULARITZA

Domingo Unanue plaza, 2 behea
Tel.: 943 16 23 86 - 943 16 15 58
Faxa: 943 16 15 58

**Apiriletik ekainera
errenta aitorpenak
egiten dira**

ORDIZIA

9:00etatik 19:00etara
EGUERDIZ IREKITA

- Laborala
- Fiskala
- Kontablea
- Juridikoa
- Aseguruak
- Inmueble agentzia

Argitarapen honen edizioko laguntzaile.

En la edición de esta publicación colabora:



kutxa
zuri esker

gizarte ekintza

Zatoz

*Jai Zoriontsuak
opa dizkizuegu!!*

Carrefour



-era

**Guztian aurreztuko duzu
kalitatean ezik**



Polígonoa 201 - Tfnoak: (943) 88 09 79 - 88 80 89 - Fax: (943) 88 80 89 - OLABERRIA (Gipuzkoa)

San Joan jaiak Olaberrian

Ekainak 22, ostirala:

20:00etan: Gazte poteoa.

21:30ean: Gazte afaria.

Ondoren: Gazteen Olinpiadak.

Ekainak 23, larunbata:

9:30ean: Probintzi eta herri mailako bola txapelketa.

10:45ean: Txirrindulari proba: XII. Gipuzkoako itzulia, gazteen mailan.

11:00etan: Herri mailako plater hausketak.


11:30ean: Gazte mailako III. Pilota txapelketa.

12:30ean: Txirrindulari probaren amaiera.

15:30ean: Futbol partida, Eskoletako futbol zelaian.

17:00etan: Haurrentzako jolasak.

18:00etan: Herri mailako XVI. Pala txapelketa.



18:00etan: Gipuzkoako Txapelketarako baliagarria den sega proba, Insausti-berriko zelaian. Partaideak: Jose Ramon Aia, Mikel Aranalade, Gabriel Manzisidor eta Juan Mari Ugarte.

19:00etan: Buruhandien irteera eta kalejira txistulariekin.

19:30ean: Antzinako ohiturari jarraituz, loreen bedein-kapena.

20:00etan: San Joan Zuhaitzaren igoera.

21:00etan: Parrilada.

22:30ean: San Joan Sua eta Oin-Arin dantza taldea.

Ekainak 24, igandea:

10:00etan: Goiz eresia, Idiazabalgo txistulari taldearekin.

11:00etan: Gipuzkoa mailako plater hausketak.

11:00etan: Meza Nagusia.

11:45ean: Herritarrei Udalak eskainitako hamaiketako.

Jarraian: Erramun Martikorena.



ILARGI



Bosch eta Veeder-root takografoen zerbitzu ofiziala



Jai zorientuak denoi!

☎ 943 88 32 12

Iurre auzoa OLABERRIA



J. L.

**LANTEGI
HORNIGAIK**

☎ 943 88 09 60

☎ 943 88 17 43

Faxa: 943 88 69 05

201 Industrialdea, 6. pab.

OLABERRIA

97 posta kutxa

BEASAIN

ALKATEAREN AGURRA

Olaberriar maiteok:

Aurten ere badatoz San Joan alaiak, eta aurreko urteetan bezalaxe, jai-batzordeak antolatatu dituen ekintzetan parte hartzeko deia egiten dizuet.

Herri txikia izan arren, herri bat gara, eta gure jaiak beste edozein herri bezala disfrutatzen bada-kigula erakutsi behar dugu. Jaietan elkar ezagutzeko eta geure arteko batasuna sortzeko aukera ederra du-gu, eta guztiok jarri behar dugu gure aldetik herriak bere nortasuna izan dezan. Horrela, gure herriaren ikur izango diren zapi berria eta kamiseta edo alkandora zuria jantzi ditzazuela eskatzen dizuet.

Gaur egungo korporazioak Udalaren zuzendaritzan bere ibilbidearen erdia egina du dagoeneko. Bi urte horietan egindako ekintzetan Olaberriaren etorkizunerako mesedegarria izan zitekeena egiten saia-tu gara. Espero dut helburua betetzen ariko dela, eta zuengandik gertuago egongo garela.

Amaitzeko, esan, jai hauetan zehar gure artean ez daudenak gogoratuko ditugula, eta opa diegu be-ren txokoetan festak ongi pasa ditzatela, eta jaietako lau egun hauek ongi pasatzen lagun diezagutela.

Oreka zaindu

Ondo pasa, baina pasa gabe

Ez gehiegi pasa... baina ez paso egin

Jai zorientuak!

Alkatea

Txomin Mendoza Perez



**OLABERRIAKO
UDALA**



17:00etan: Ohiko asto karre-
ra.

18:00etan: Aizkolariak:
Kristina Saralegi Jon Rekon-
doren aurka.

19:00etan: Motozerraz egu-
rra lantzeun duen Ikusgarri
taldearen erakustaldia.

20:30ean: Burruntzi jana.

21:30ean: M-n Ezten musi-
ka taldearen saioa.

23:00etan: Su artifizialak,
Zaragozana Pirokteniaren
eskutik.

Ondoren: M-n Ezten musi-
ka taldea.

Ekainak 25, astelehena:
Haurren eguna:

10:30ean: Trena. Iurre auzo-
ko parketik aterako da. Ja-
rraia, Errekalde auzora jo-

ango da jendea biltzera. Eta
egun osoan herrian zehar ibi-
liko da.

11:00etan: Haur eta gazteen-
tzako jokoak, herriko plazan.

12:00etan: Puzgarrien jolas
parkea.

13:30ean: Udalak haurrei
eskaintzen dien bazkaria.

14:30ean: Arratsalde osoan
jolas parkea.

17:00etan: Olaberriko Arku
Tiraketa taldearen erakustal-
dia.

18:00etan: Herri jolasak
Kulki taldearekin.

19:30ean: Buruhandien irte-
era.

20:00etan: Sagardo eta talo
dastaketa.

Arg.: Javier Fernandez



*Festa
onak
pasa!*

EDARITEGIA

© 943 88 95 60 OLABERRIA

ARRIETA

*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

JATETXEA

☎ 943 88 00 02 OLABERRIA

Ezkontzak,
jaunartzeak,
bataioak...
era guztietako
ospakizunak



ETXE-ZVRI
SAGARDOTEGIA

✖ Sagardoa txotxetik urte guztian

✖ Bataio, jaunartze,
lagunarteko eta negozio
bazkariak

✖ Karta

Aurrez deitzea komeni da

Tfnoa.: 943 88 20 49
OLABERRIA

Estación de Servicio
YURRE



Jai zoriontsuak pasa!

AUTO-ZERBITZU
GELTOKIA

24 ORDUKO ZERBITZUA

☎ 943 88 01 61 Iurre auzoa
OLABERRIA

IRUROK 
OPEL 



San Joan zoriontsuak denoi!

N-1 errep. Madrid-Irun
☎ 943 88 51 50
OLABERRIA

Herriko gaztetxoak elkartu eta herriari bizia ematea helburu

Pilota Eskola eta futbol taldea sortu dira

Olaberria herri sakabanatua da oso eta ondorioz, ez du herri izaera handiegirik. Herriko haurrak, inguruko herrietako ikastetxeetara joaten dira eta askotan, ez dira elkar ezagutzen ere. Pixkanaka, ordea, herrian ekimen ezberdinak ari dira sortzen herriari bizia eman nahian. Pilota Eskola sortu zen lehenengo eta futbol taldea oraintsu.

Duela hiru urte, Sanjoanetan, pilota txapelketa antolatzen hasi zen Garikoitz Arrietak. Txapelketa horri jarraipena ematea erabaki zen, entrenamendu eguna eta ordua zehaztuz. Pilota Eskola sortu zen. Larunbatetan, eguerdiko 12,30etatik 2etara, izaten dira entrenamenduak herriko pilotalekuan.

Herrian ekintzaren bat sortzearen hasi ziren. "Hiru ur-



*Iaz Sanjoanetako finala jokatu ondoren ateratako argazkia.
Arg.: Jabier Fernandez*

teotan finkatu eta sendotu egin da. Giro polita egoten da eta auzo ezberdinak haurrak elkartzen dira, orain arte egon ez dena eta guk ezagutu ez duguna", gaineratu du Arrietak.

Gogotsu daude gaztetxoak. Zaletasuna ere badute. 16 bat lagun elkartzen dira Pilota Eskolan, 8-14 urte bitarteko mutikoak. 10-14 urte bitarteko gazteek jokatzeko dute

txapelketa.

Palaz eta eskuz jokatzeko dute. Garikoitz Arrietak eman dizkigu arrazoiak: "bietara ibiltzen ziren eta batzuk batean hobeto moldatzen ziren eta besteak bestean. Orduan, bi eratako entrenamenduak egiten dituzte eta partidak ere bietara jokatzeko dituzte. 16nako bi partida jokatzeko dituzte eta tantorik gehien lortzen duen bikoteak

irabazten du. Joera handiagoa daukate palarako. osoa goa da bietara jokatzeko".

Asko hobetu omen dute pilotariek, Pilota Eskolari esker. "Entrenamenduetatik aparte ere asko ibiltzen dira eta asko hobetu dute".

Larruzko pilotarekin entrenatzen hasi dira azken aldian, pala mundua gehixeago murgiltzeko. "Materiala Udalak jarri du. Kaskoak, betaurrekoak, pilotak... Eskatutako guztia eman digu. Orain kanpoko pilotariren batzuen aurkako txapelketatxo bat egitea pentsatzen ari gara, motibazio gehiago izan dezaten", dio Garikoitz Arrietak.

Neskarik ez dago Pilota Eskolan, "ez mugarik dagokelako, kirolerako zaletasunik ez dutelako baizik", dio olaberritarrek.

San Joan jai hauetan finalak jokatu dituzte. Larunbatean izango da, goizeko 11,30etan hasita.



LADA
Ssang Yong

N-1, z/g

☎ 943 88 09 47

ARANDIA
Garaiea


AUTOEN KONPONKETA

Iurre Auzoa
OLABERRIA

Alpe
SUKALDE ALTZARIAK

sukalderik goxoenak

Marlarats 10 Beasain
Tfno/Fax 943 88 86 84



ondoeta

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51

Faxa: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA

ALTZAIKUZKO ATEAK:
AUTOMATIKOAK,
BASKULANTEAK,
MARATILDUNAK,
STANDARRAK,
ETA ABAR.

Haurren futbol taldea

Pilota eskolarena bezalatsu futbol taldearen helburua batez ere herriko haurren artean giroa sortzea da, hauek ondo pasatzea. Egunen batean zerbait gehiago lortzen bada ondo, baina, batez ere beraiek ondo pasatzea nahi dute.

Futbol taldearekin haurrek interes handia azaldu dute eta gurasoak ere gustura ari dira lanean. Momentu honetan 15 bat haur daude. Entrenatzaileak guraso taldea dira eta lanean dituzten erreleboen arabera entrenatu beharra izaten dute. Egunik finkoena larunbat arratsaldea izaten dute.

Egunen batean federatuta jokatzeko zen lehen asmoetako bat. Baina taldea sortzeko adin berdineko nahiko haur elkartzea ezinezkoa da. Hasieran haur gutxi zeudenez neska-mutilen taldea sortzea

zen asmoa baina neskak ez dira animatu.

Entrenatzeaz gain partida batzuk jokatzeko dituzte. As- tean behin Beasaingo talde baten aurka, batean Beasainen eta bestean Olaberrian. Herriko jaietan Zaldibiko talde baten aurkako partida jokatuko dute.

Laguntza ugari

Taldea sortzeko behar zuten laguntza guzti izan dute. Udalak eskolen ondoko zelaiaxoa berritu die eta Aceraliak jokalarien elastikoak egin dizkiete.

Futbol zelaiak neurri arauturik ez duenez eta jokari kopurua ere exkaxa denez 6 jokalarirekin jokatzen dute. Hasiera batean porlanezko zelaian jokatzen zuten baina eroritakoan mina hartzen zutela eta orain lurrezkoan jokatzen dute.



Partidak ikustera batez ere haurren gurasoak eta beraien adinetako neskak joaten dira, azken hauek pankarta eta guzti. Auzoarentzat bizigarria izan da futbol taldea.

Orain arte Olaberriako haurrek ez zuten beste aktibitatearik eta orain behintzat pilota eta futbola dituzte elkar- tu eta kirola egin ahal izateko. Futbolean jokatzeko gain, haurrekin afari eta festak egi- ten dituzte hauek elkarrekin egon ahal izateko. Horrela beraien arteko batasuna lortu nahi da.

Haur gutxi lurren

Garai batean bai futbol eta baita atletismo taldeak zeuden Olaberrian, baina denborarekin galdu egin dira. Horretan batez ere zerikusia izan du lurre auzoa 'zahar- tzen' joateak. Orain dela urte batzuk gazte asko zegoen bertan, baina hauek nagusitu direnean bertan geratzeko etxebizitzarik ez eta beste herri batzuetara joan dira bi- zitzera. Hori dela eta bertako biztanleria asko zahartu da eta haurrak dituzten bikoteak oso gutxi dira gaur egun

GARTXO JATETXEA

gosariak
hamaiketakoak
eguneroko menua

Aukera haundia

Industrialdea, 118

☎ 943 88 13 09 OLABERRIA

AIARZA KARROZERIA



EDOZEIN AUTO EDO
IBILGAILUREN
KARROZERIA, TXAPA
ETA PINTURA

Iurre lantegialdea, 10

☎ 943 88 05 65 OLABERRIA

INYELEC

Auto elektrizitatea

☎ 943 16 07 85

Iurre Auzoa OLABERRIA

OGEi S. A. L.

Eraikuntza metalikoak

- ✓ Hormigoneren fabrikazioa
- ✓ Hormigonatu hornitegiak
- ✓ Fatxadetako jasogailuak

☎ 943 88 52 50 - 4

Iurre Auzoa, z/g

OLABERRIA

12 P.K. BEASAIN

JOSE MARTINEZ ARROYO BULKANIZATUAK

Marratuak, llanta eta neumatiko salmenta

☎ 943 88 05 66 (Tailerra)

☎ 943 88 16 69

Iurre Auzoa
OLABERRIA



INDUSTRIAS LANDU KOOP. E.

PREZISIOKO MEKANIKA OROKORRA

☎ 943 88 21 52 - 943 88 61 94

Faxa: 943 88 99 10

95 posta kutxa BEASAN

6. Industrialdea, Iurre auzoa OLABERRIA

Segura jaietan

Ekainak 22, ostirala:

18:30ean: Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoak Baratze pilotalekuan.

20:00etan: Zopa Pertzaren jaitsiera.

Ondoren: Mozorroituak plazan eta kalejiran.

22:30ean: Afizionatuen arteko pilota txapelketa Baratze pilotalekuan.

23:30ean: Etzakit taldearekin dantzaldia herriko plazan, txozna eta tabernariak ordainduta.



futbito txapelketaren finala.

15:00etan: Plazan koadrilen arteko bazkaria.

16:30ean: San Joan txirringulari proba.

18:00etan: Kixka antzerki taldea herriko plazan.

19:30ean: Segurako txistularien alardea.

23:00etan: San Joan arbola jartzea. San Joan sua, dantzariak eta txistulariak.

23:30ean: Begira taldea.

Ekainak 24, igandea:

09:45ean: 'Segurako Alborada' Kriseilu taldeko txistulariekin.

10:15ean: Alkate doinuz elizara bidean.

10:30ean: San Joan Prozesioa eta meza nagusia.

Ondoren: Hamaiketakoa herriarrentzat plazan. Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso bertsolariekin ongi etorria. Herriko abesbatzak 'Segurako Alborada' abestuko du. Jarraian, San Joan egoitzara bisita.

Eguerdian: Kilkir txaranga kaleetan zehar ibiliko da.

12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: Haur parkea: kars-ak, txirristak eta ovni puztuak.

13:00etan: Herri kirolak plazan: Zegama Seguraren aurka. Trontzan, aizkoran eta ingude altxaketan jardun beharko dute.

13:00etan: Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso plazan.



N-1 errepidea, lurre auzoa
943 88 43 01 OLABERRIA

KALITATEKO
EUSKAL
OKELA

**EROSLE
GOIKO**

Zurbano, 8 943 800 326



SEGURA

SEGURAKO UDALAK,

San Joan Jaiak gurekin ospatzera gonbidatzen zaituzte eta bide batez gogora arazten dizue Ardixarrene etxean 3 erakusketa daudela:

- Kendu Koop.: 25. urteurrena
- Joxe Mari Telleriaren koadroak
- Dantza janzerak

Arratsaldean: Kilkir txaranga herriko plazan.

18:30ean: Afizionatuen pilota partidak.

18:30ean: Buruhandi eta erraldoiak.

18:30ean: Triki ta Ke taldearekin dantzaldia plazan.

20:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

23:30ean: Triki ta Ke taldearen dantzaldia plazan.

Ekainak 25, astelehena:

10:30ean: Kriseilu Txistulari taldea.

12:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara: Tren berezia herrian zehar.

12:00etan: Tobera musika eskolako haurren emanaldia plazan.

13:00etan: Toka, igel eta joko Atsedenen.

13:00etan: Toka txapelketa herrikoia, plazan.



18:30ean: Afizionatuen pilota partidak Baratze pilotalekuan.

19:00etan: Buruhandi eta erraldoiak.

20:00etan: Poteo elegantea eta agur afaria.

20:00etatik 22:00etara eta 23:30etik 01:00era: Egan taldearekin dantzaldia herriko plazan.

24:00etan: Zopa Pertzaren igoera.

Zopa pertzaren jaitsiera

Gaur, ekainak 22, iluntzeko 8etara dago iragarria Elorri Kultur Elkarteak antolatu duen II. Zopa pertzaren jaitsiera. Kanpandoretik Txanbolinpeko balkoirako bidea, Kriseiluko txistularien 'Segurako alborada' ren doinupean egingo du pertzak. Ondoren, bertan etorriko den pregoia irakurriko da eta jaitsi berria izango den pertzeko zopa, haragi egosia eta ardoa barrikatik banatuko da. San Joan bigarrenetan, berriaz, gaueko 12etan pertzak kontrako ibilbidea egingo du eta herritarrek bertsoak abestuz agurtuko dute hurrengo urterarte.

Txirrindulari proba

Txirrindulari elkarteak antolatuta, 23 urtez azpiko eta elite mailakoentzako karrera 16:30ean hasi eta 19:30ak aldera amaituko da ekainaren 23an. 121 km. egin beharko dituzte eta Liernitik etorriko dira plazako helmugara.

Herri kirolak

San Joan egunean zegamarren kontra jokatuco diren probetan, ondorengoak arituko dira Seguratik: aizkoran Iñaki Azurmendi, trontzan Iñaki eta Jesus Mari Intxausti, eta igandean Imanol Intxausti.

ANTONKALE
EDARITEGIA
SEGURA

IMAZ Jatetxea

- ◆ Eguneroko bazkariak
- ◆ Karta

Festa zorianak izan!

Kale Nagusia, 27

☎ 943 80 10 25 - 943 80 13 77

SEGURA

ELORRIPE
HERRIKOA
Jailetan ere, euskal preso eta iheslariak gure artean izanen dira. Elorripetik besarkada iraultzaile bat guztiei eta ondo pasa aurtengo jailetan.
☎ 943 80 10 02 **SEGURA**



KENDU

S. Coop. Ltda.

25. URTEURRENA 1976-2001

**Ebaketa tresnetan
Europako kalitaterik onena
salneurri erabat konpetigarrietan**

San Joan jai zoriontsuak denoi!

Industrialdea, z/g
SEGURA

☎ 943 80 13 40

Faxa: 943 80 19 05


Segurako Euskal Herriko Dantza txapelketaren 25 urteak

Lierni eta M. Ixabel Elorza ahizpek Seguran ospatzen den Euskal Herriko Dantza Txapelketaren inguruan, liburua kaleratu berria dute. Lerrootan laburpentxo bat besterik ez duzue.

Urtez urte eta hutsik egin gabe ospatu da Seguran dantza sueltoko txapelketa 1977z geroztik. Orduan alkate Guillermo Areizaga zen eta zergatien bila "Guillermo zen bezalakoa zelako: ausarta", dio Karmen Txu Etxeberriak urte batzuk beranduago alkate izango zenak: "haren burutazioa izan zen, Segurari ospea emateagatik eta Segurak bazuela gaitasunik horrelako erronka bati aurre egiteko erakusteagatik".

1981ean Segurako Udalak eskaria luzatu zion Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari Seguran ospatu ahal izateko behin betiko Euskadiko Dantza Txapelketa. Azpimarratu zen argudioa bost urtetan izandako arrakasta. Beste herri batzuek ere horrelako asmoekin bazebiltzan ere (Bergara adibidez) Segurak bereganatu zuen antolaketaren ardura eta orduz geroztik eten gabe urtez urte arrakastatsua goa izan da txapelketa.

Karmen Txu bera jadanik dantza munduan murgildua zen, herrian Zain Berri taldea



Segurako txapeldunak

1977	Juanito Sarriegi-Lurdes Lopetegi (Hernani-Lezo)
1978	Juanito Sarriegi-Lurdes Lopetegi (Hernani-Lezo)
1979	Alkorta lehengusuak (Zaldibar)
1980	Juanito Sarriegi-Lurdes Lopetegi (Hernani-Lezo)
1981	Joxe Juan Ugalde-Lurdes Esnaola (Lezo)
1982	Joxe Juan Ugalde-Lurdes Esnaola (Lezo)
1983	Joxe Juan Ugalde-Lurdes Esnaola (Lezo)
1984	Juantxo Urbieto-Amaia Agirre (Osintxu)
1985	Isaak Agirre-Belen Sagarzazu (Azkoitia)
1986	Juantxo Urbieto-Amaia Agirre (Osintxu)
1987	Isaak Agirre-Belen Sagarzazu (Azkoitia)
1988	Isaak Agirre-Belen Sagarzazu (Azkoitia)
1989	Antton Mendizabal-Amaia Illarreta (Donostia)
1990	Antton Mendizabal-Amaia Illarreta (Donostia)
1991	Antton Mendizabal-Amaia Illarreta (Donostia)
1992	Isaak Agirre-Belen Sagarzazu (Azkoitia)
1993	Edu Muruamendiaraz-Amaia Agirre (Bergara)
1994	Edu Muruamendiaraz-Amaia Agirre (Bergara)
1995	Edu Muruamendiaraz-Amaia Agirre (Bergara)
1996	Aitor Parrondo-Amaia Parrondo (Hernani)
1997	Iban Agote-Iraultza Garmendia (Lezo)
1998	Kimetz Larrañaga-Eneritz Epelde (Azkoitia)
1999	Kimetz Larrañaga-Eneritz Epelde (Azkoitia)
2000	Kimetz Larrañaga-Eneritz Epelde (Azkoitia)

sortze-lanetan. Ilusio handiz mintzatzen da hastapen haietaz: "orduan erakunde ofizialetan orain baino gertutasun

handiagoa nabaritzen zen eta suertez dantza munduko jendearekin topo egin zuen Guillerrok. Euskal Herri maila-

ko txapelketarik orduan ez zenez, Segurak lortu zuen horrelako ekimen bat herrian antolatzea".

Orduz geroztik antolaketa, partaideen maila, kokalekua, jantziak, eszenatokia eta abar nabarmen aldatu dira, Karmen Txu behin eta berriz telebista emititzen hasten deneko urtea dakar gogora: "1994ko txapelketa izan zen telebistaz ikusi ahal izan zen lehenbizikoa eta horrek lehen zaindu behar ziren ere konturatzen ez ginen detaile asko ondo lotzea oso inportantea zela erakutsi zigun. Apainketa, jantziak eta abar dotoretzen eta irudia hobetzen saiatu gara urtez urte. Dantzaren kultura zabaltzeaz gain, dantzari eta herriari berari ere beste proiektio bat ematen dio telebistak".

Sortzaile eta bultzatzaile izan zen Guillermo Areizaga 1991n hil zen hala ere bere oroimenak bizirik dirau ekitaldi honetan: 1994az geroztik Guillermo Areizaga Saria ematen da. Lehen aldiz aurkeztu diren bikoteen artean puntuaziorik hoberena lortzen duenak eskuratzen duen plaka izaten da. "Guillermo-zen izateari jarraituz sortutako saria da, izan ere oso garbi bai zuen ilusioa eta 'kante-rra' indartu behar zirela eta hor zegoela etorkizuna. Eta benetan oso ondo erortzen den saria da", gogoratzen du Karmen Txu.



AUSO EGI

Urdaneta, 41
©-Faxa: 943 88 95 76
ORDIZIA

- ✖ Tximini eta egurrezko ekonomikak
- ✖ Berogailuak
- ✖ Iturgintza
- ✖ Zeramika erakusketa
- ✖ Bainuko altzariak
- ✖ Erreforma osoak



25 urteko bide luzea

Segura: euskal dantzaren kabia

Euskal Herri mailako Dantza Txapelketa Segurako herrian 1997az geroztik Udalak antolatzen du.

Udalaren Sari Handia edo Sari Nagusia Nestor Basterretxearen eskultura lanak irudikatu du urtez urte. Sari hau lehenengo sailkatutako bikoteak ordezkatzeko duen udal txean gordetzen da hurrengo txapelketa egin arte. Bikote irabazleak ordezkatzeko duen Udala sariaren jabe egingo da baldin eta bikote horrek hiru aldiz segidan edo bost urtez txandaka txapelketa hau irabazten badu.

Ez dira asko ohore hori izan duten bikoteak: Joxe Juan Ugalde eta Lurdes Esnaola lezotarrek 1981-1982-1983an izan ziren eskultura bere herriari eman zioten lehen dantzariak. Antton Mendizabal eta Amaia Illarreta donostiarrek izan ziren ohore hau izan zutenak 1989-1990-1991ko txapelketak irabazi ondoren. Bergara izan da Nestor Basterretxearen eskulturaren jabe egin den hirugarren herria Edu Muruamendiaren eta Amaia Agirrek irabazi baitzuten 1992-1993-1994ko txapelketak. Azken hiru urtetan berriz, 1998-1999-2000an, bikote bera izan da irabazle. Kimetz Larrañaga eta Eneritz Epeldek osatutakoa eta ondorioz Azkoitia da azken eskulturaren jabe.

Tokiari dagokionez beti Segurako Pilotalekuan ospatu izan da. Hasieran, 1982 arte, eliza ondoko frontoi irekian eta 1983tik aurrera Baratzeko Pilotaleku estalian (1982an inauguratua). Nabarmena da ere berean irudi aldetik 25 urte hauetan txapelketa honek izan duen bilakaera, oholtza eta bere inguruaren itxura aldatuta begi bistakoa da.

Gipuzkoarrak nagusi

Gipuzkoar bikoteen partaide-tza nabarmen nagusitzen da Txapelketan: %79,16. Bizkaitarrak %14; arabarrak %4,4; nafarrak %1,6 eta Iparraldekoak %1. Gipuzkoan eskolen eragina azpimarragarria da. Dantza-eskolak dau-den edo ikastaroak ematen dituzten herrietako eta eskualdeetako ordezkariak ugaria da horren lekuko. Horrela, Gipuzkoan adibidez, Bergara, Hernani eta Azkoitia batuta ikusten da ia gipuzkoarren partaidetza erdia hiru herri hauetatik etorria dela.

Kezkak aspaldi hasiak ziren eta horrela 1993. urtean egunkarietan dantzarien kexa azaltzen da esanez: Euskal Herriko Txapelketa izanik eta arauak besterik zehazten duten arren, epaimahaikide guztiak gipuzkoarrak direla. Dantzariak diote, dantza askatuaren baitan estilo arras desberdinak daudela eta horrela erakusten digu txapelketa honek. Epaimahaikoei



egoera honi ahalik eta erantzunik hoberena eman nahian hainbat berrikuntza sartu zituzten: puntuazioa emateko arauak finkatuz (1994. urtean martxan jarri ziren) urtez urte hobetzen joanez, gipuzkoarrak ez direnak kanporaketarik gabe finalera pasatuz eta abar.

Ikusleen berotasuna

Ikusleek ere merezi dute aipamenik 25. urtemuga honetan. Izan ere urtez urteko erantzuna oso ona izan baita. Beti frontoia lepo egon izan da. Egunkariak ere urtero azpimarratu izan dute ikuslearen berotasuna. Euskal Telebista emititzen hasi zenetik 1994tik aurrera, bertakoez gain telebistako jarraitzaileena ere gehitu behar zaio ikusle kopuru orokorrari.

Janzkera

Aipamen berezia janzkerak ere merezi du. Hasierako txapelketetan dantzarien jantziak oso antz handia izaten zuten elkarren artean, gaur egun berriz alde handia dago batzutatik besteetara, gai honen inguruan ere jakin-mina areagotzen ari da eta geroz eta interes eta arreta handiagoa eskaintzen zaio janzkerari.

Musikariak

Dantzariak dantzan arituko badira doinua ezinbestekoa dute, hasierako urteetan txistu doinuz joak izaten ziren fandango eta arin-arina, ondoren trikitixa ere komenigarria ikusi zen, bizitasun handiagoa eskatzen zuela eta. Horrela 1981etik aurrera fandango txistuz eta arin-arina trikiti doinuz dantzatu behar izaten dute partehartzaileek. Aipatzekoa da hasieratik Joxemari Telleria segurarra eta Naxario Telleria Idiazabalgoa direla urte gehien aritu diren musikariak.

BERRIZ ARANBURU
ERROPADENDA

Nagusia, 8

☎ 943 88 04 53

BEASAIN

Nagusi
Optika

 Osakidetzarekin
 hitzarmenari atxikiak

☎ 943 161 999 Nagusia, 10 BEASAIN

Uztailaren 1ean, Aizkorriko Lagunen II. Eguna Zegaman

Juanito Oiartzabal eta Edurne Pasaban mendizaleak bertan izango dira

Azko uztailaren 2an egin zenari jarraituz, aurten ere, Aizkorriko Lagunen Eguna ospatuko dute Zegaman. Juanito Oiartzabal (14 8.000ko igoak) eta Edurne Pasaban (Everest igo duen lehenengo emakumezkoa) mendizaleei errekonozimendu oroigarriak emango dizkiote bazkalondoren, eta bazkarian izango dira. Bazkarian parte hartu nahi izanez gero, ekainaren 25ean amaitzen da izena emateko epea. Azkenik, berrikuntza bat: bi mendi ibilaldi antolatu dituzte, Aizkorriraino eta San Adrianeraino, bakoitzak ahal duen neurrian egin dezan. Edurne Pasaban tolosarrak ere egingo du Aizkorriko joan-etorria.



Zegamako Udalaren ekimenez, eta herriko elkarteen laguntzaz, Aizkorriko Lagunen Elkartea sortu zen iaz eta bide batez, Aizkorriko Lagunen I. Eguna ospatu zen, uztailako lehenengo igandean. Era honetan, datozen urteetako uztailako lehenengo igandean ere, Aizkorriren lagunak elkartuko dira Zegaman, egun bete-betea ospatzeko helburuarekin. Lehenengo ekitaldia, arrakasta osoz ospatu zen eta egun eder eta go-goangarria izan zen iazkoa zegamarrek diotenez.

Bazkide egiteko aukera

Aizkorrialdearen edertasuna lau haizetara aldarrikatu, bere ondasunak zaindu eta inguru naturalarekiko errespetua eskatu. Horixe da Aizkorriko Lagunen Elkarteko kideak elkartzen dituenak. Oraindik ere badago Elkarteko bazkide egiteko aukera. 943801351 telefonoa duzu horretarako. 200 lagunek osatzen dute dagoeneko Aizkorriko Lagunen Elkartea.

Zegamarrek gonbitea luzatzen dizue lerro hauetatik.

Egitaraua

Ekainak 28, osteguna:

20:00etan: Hitzaldia: Euskal Federazioak izendatutako 2000ko urrezko pioleta den Mikel Saez de Urabain eta Carlos Vieirak 'Neguko eskalada Himalayan, Kusun, Kangurun'-i buruz. Kultur etxean.

Uztailak 1, igandea:

07:00etan: Mendi irteera: Zegamako plazatik Aizkorriko mendi-ibilaldiaren irteera, Amezti Mendi Elkartekoen gidaritzapean.

08:00etan: Mendi irteera: Zegamako plazatik autobusez Apeaderoraino eta hemendik San Adrianera oinez Amezti Mendi Elkartekoen gidaritzapean.

11:00etan: Meza eta hamai-
ketakoa: Atsedenaldia San Adrianen: Meza San Adrian-
go ermitan, Aita Pello Urriolabeitiak emana. Sancti Spiritun: Hamaiketakoa, txorizo ogitartekoa eta edaria, bertara hurbildu nahi duten guztientzat.

12:00etan: Jaitziera: Sancti Spiritutik Zegamarako jaitziera lagunartean. Gurutze Gorriaren laguntza eta mendiko automobil zerbitzua jarriko da, norbaitek hala behar izanda ere.

14:00etan: Iritsiera: Trikitilariekin kalejira.

15:00etan: Bazkaria herriko pilotalekuan. Ekainaren 25erako izena eman behar da. Telefonoa: 943801351. Bertsolariak eta trikitilariak izango dira.

17:30ean: Erromeria, erraldoi eta buruhandiek.

Partzoneriak 600 urte

Beste Partzoneria batzuen modura, gaur egun Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo eta Partzuergo Txikia bezala ezagutzen ditugunak ere, XV. mendearen hasieran eratu ziren. Partzoneria edo Partzuergo, 'elkarte' edota 'erakunde' bezala osatzera iristeko, aurretik beste hainbat gertaera izan ziren. Garrantzitsuenak, 1401eko martxoan: gaur egun Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo eta Partzoneria Txikia bezala ezagutzen ditugun lurak, Enrike III.a Erregeak, Perez Ayala, Gipuzkoako Korrejidorearen esku jartzea izan zen. Gerratean eskainitako laguntzaren ordainetan eman zizkion. Egun gutxiaren buruan, 1401eko ekainaren 22an, Segurak eta bere kontzejuetako biztanleek, erosi egin zizkioten lursail haiek Perez Ayala Korrejidoreari. Izan ere, balio handikoak baitziren Segurako hiribilduari atxikita zeuden Zegama, Zerain, Idiazabal eta Legazpiko artzain, ikazkin, abeltzain, baserritar eta gainerako herritarrentzako. 1430era bitartean lursail hauen jabe eta erabiltzaile ziren herrien artean hainbat auzi eta gora-behera izan zen eta azkenik, 1430eko azaroaren 16an, San Adriango kobazuloan sinatu zuten herrien arteko hitzarmena, Partzuergo lege osatu eta erabilpen-arauak erabakiz.

1401ean Gipuzkoako Korrejidoreari erositako lurak bitan antolatu ziren gero: Partzuergo Txikia, egun Zegama, Segura, Zerain eta Idiazabalgo biztanleen esku dagoena. Gipuzkoa eta Arabako Partzuergo, berriz, egun lehen aipatutako horiez gain, Arabako San Millan eta Asparrena herriek osatzen dutena.

Idiazabalgo Eguneko Zentroak Goierri osorako zerbitzua eskaintzen du "Eguneko zentroa ez da erresidentzia bat"

Lan eta buruhauste askoren ondoren, iazko urriaren bukaeran inauguratu zen Idiazabalgo Eguneko Zentroa. Idiazabalgo eta Goierriko hainbat herritako zazpi lagun joaten dira egunero Pilar Eneara eta arduradunak eskari gehiago aztertzen ari dira. Langileek eta Udalak hasierako hilabeteen balantze ona egin dute.

Gipuzkoako gainerako Eguneko Zentroetan gertatu den moduan, urtebete egiten duenerako, Pilar Enea beteta egotea nahiko lukete Idiazabalgo Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Josune Salegi Gizarte Laguntzailearen esanetan, "12 lagunentzako dago leku, hala ere, jende gehiago sartu litekeela esan digute Gipuzkoako Diputaziotik. Guk, gehienara, 16rentzako lekua dagoela uste dugu". Une honetan zazpi lagunei ematen zaie zerbitzua, horietatik, hiru idiazabaldarrak dira, besteak Zegama, Ordizia eta Goierriko gainerako herrietakoak.

Izandako erantzunarekin gustura daude arduradunak, hala ere herrian bertan, Idiazabalen, jendeak dituen erreparaoak ez zituzten espero. "Jendeak ez du ulertzen Eguneko Zentroa zer den, askorentzat, gurasok abandonatzearen parekoa da", dio Josune Salegik. Izan ere kontzeptu berria da askorentzat. Nekane Imaz, Eguneko Zentroko langilearen ustez, "jendeak badaki zentroa zabalik dagoela, lekua



Fotoetxe

Egunbete Eguneko Zentroan

Goizeko 9.30etatik arratsaldeko 6.00ak bitartean egoten da zabalik Eguneko Zentroa. Ondoko eginbeharrak betetzen dituzte bertara joaten direnak:

9:30: Orientazioa saioak: egunkaria irakurri eta komentatuz. Zein egun den gogoratu...

10:30: Soinketa, gutxieneko mugimenduak, tarteka fisioterapeuten laguntzarekin.

11:30: Aisialdia: paseatu edo jokoetan aritu, bakoitzaren ahalmenaren arabera.

12:30: Bazkaria.

14:30: Siesta edo telebista ikusteko aukera.

16:00: Merienda eta ondoren karta jokoak, dominoa, partxisa....

18:00: Bakoitza bere etxera joaten da.

ikusi eta gustura geratzen dira, hala ere askok Zaharren-tzako Egoitzekin erlazionatzen dute. Hori aldatzea kostatuko da". Nekanerekin batera beste bi herritar aritzen dira Eguneko Zentroan lanean.

Zortzi hilabete hauetan egindako lanarekin konforme daude, "hona datorren jendeak ez daki zertara datorren, beraientzat berria da". Denborak aurrera egin ahala, Eguneko Zentroa joan diren aitona-amonak eta haien familiartekoak gustura daude Nekaneren esanetan.

Goierri osorako

Idiazabaldarrek dute Eguneko Zentroan sartzeko lehen-tasuna. Lekua dagoen bitartean, ordea, Goierri osoko jendeak egin dezake eskaria Idiazabalgo Udaletxean. Ordaindu beharreko kopurua berdina da guztientzat. Hileko 40 mila pezeta. Horri garrarioa gehitu behar zaio, Josune Salegiren esanetan, "aukera ezberdinak daude. Lehena, senitartekoek beraiek ekartzea. Horretarako biderik ez badago, anbulantzetan ekartzen dituzte. Idiazabaldik datorrenak 10 mila

pezeta ordaindu behar du. Kanpokoek, bakoitzaren udalak ematen dituen laguntzen arabera. Kasu batzuetan 50 mila pezeta ordaindu beharra izaten dute". Dirua, ordea, ez da traba Eguneko Zentroa erabili nahi duenarentzat. Ezarritakoa ordaintzerik ez dutenentzat ere irtenbideak aurkitzen dituzte.

Zerbitzua hobetuz

Aurrera begira, lehendabizi, udarako prestakizunetan dabiltza, Eguneko Zentroa uda guztian zabalik egongo baita. Nekaneren ustez, "horrek aukera ezberdinak ematen ditu, urtean zehar etorri ez den lagun bat udan etorri liteke". Egunero joaten den jendea nahiago duten arren, egun erdirako edo tarteka joan nahi dutenentzako moldaketak ere egiten dituzte.

Urtebete egiten dutenerako zerbitzua nola hobetu ere pentsatzen ari dira. Psikologo baten laguntza egokia izango litzatekeela uste dute. Aurrerago begira, beste leku batzuetan gertatzen ari den bezala, asteburuetan zabaldu beharra iritsiko dela ere uste dute.

Ordurako Diputazioak laguntza gehiago ematea ere espero dute. Oraingoz sei lagunentzako laguntzak ematen dituzte. Diputazioak aurrekontuak onartu zain daude, kopurua handitzeko.

Xabier Urteaga

San Pedro jaiak Mutiloan

Ekainak 28, osteguna:

San Pedro bezpera:

19:30ean: Txerriaren jaitsiera eta kanpai jotzea, festei hasiera emateko.

San Pedro sua.

Iluntzean giroa Andonegi eta Ostolaza trikitilariak alaituko dute.

Ekainak 29, ostirala:

San Pedro eguna:

12:00etan: Meza. Ondoren, Andonegi eta Ostolaza trikitilariak.

20:00etan: Sagardo dastatzea, txorizo jana eta taloak. Andonegi eta Ostolaza trikitilariak giroa berotuko dute.

Ondoren, oilasko erreka jateko aukera ere izango da.

24:00etatik aurrera Kristina eta Amaia, 'M-N ezten taldea' eta Trakets taldeak alaituko dute giroa.

Goizaldera, Txokolate jana.

Ekainak 30, larunbata.

Eguerdian, Poteo herrikoia.

14:00etan: Gazte bazkaria.

17:00etan: Ume jolasak, Sebastopoleko titiriteroekin: Pin tailerra, margotze tailerra, makilaje tailerra, diana eta uztai tailerra, malabar tailerra



Jose Larrarte (zorroztailea), Iñaki Zabalo (segalaria), Xabier Aranburu (segalaria), Iñigo Muñoa (epailea), Luxio Agirre (zorroztailea), Jon Ugalde (segalaria) eta Asier Agirre (segalaria).

eta gaztelu txikia.

18:00etan: Bola lehiaketa. Honako sariak egongo dira: eguneko irabazlea, azken irabazlea (larunbata eta igandea kontatuta), herriko irabazlea. Parte hartzeko epea arratsaldeko 5etan itxiko da.

18:30ean: Sega apustu mundiala herriko gazteen artean: Bekotxe-Sefer, Zabalo-Iparren aurka.

20:30ean: Herri afaria. Txartelak, Herriko ostatuan hartu

behar dira aurretik.

Gauerditik aurrera: dantzaldia Etzakit talde ezagunaren eskutik.

Uztailak 1, igandea:

Goiz eresia Segurako txistulariekin.

Eguerdian, Gabiriako Goruntz taldearen dantza saioa.

Bazkal aurrekoa Olatz Nograro eta Ainhoa Munduate trikitilariak alaituko dute. Toka lehiaketa federatu gabeko entzat.

17:30ean: Pilota partidak. Idiazabal, Zerain, Segura, Zegama eta Mutiloa herrien arteko pilota txapelketaren finalak.

18:00etan: Bola lehiaketa.

Izen ematea, 17:30ak arte izango da.

Ondoren, Herri kirolak: Aizkoran, trontzan, korrikan, aitzurrarekin egurra moztea, gurdi proba, zerratokia era zaharrean. Zurgai herri kirol taldearen eskutik.

Olatz Nograro eta Ainhoa Munduate trikitilariekin erromeria.

Uztailak 7, larunbata:

18:00etan: Patata tortilla lehiaketa. Ardo banaketa izango da.

21:00etan: Afaria.

Ondoren, Trakets taldearen dantzaldia.

Eta aurtengo festei amaiera emateko, Txerri erretzea.

Oharrak

- Bazkari eta afarirako txartelak hartzeko deitu 943 80 11 66 telefonora
- Tonbola izango da.

SAN BENITO IKASTOLA
LAZKAOKO
Haurtzaindegia-ludoteka

Zabalik urte osoan zehar:

- ✕ **Haurtzaindegia:** 7:00etatik 20:00etara eta larunbatetan 7:30etik 14:30era.
- ✕ **Jantokia:** 7:00etatik 9:00etara eta 12:00etatik 14:30era (haur eskolarizatuak)
- ✕ **Haurtzaindegia-Ludoteka:** 16:30etik 20:00etara eta larunbatetan 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.
- ✕ **Kanguroak:** Ostiral eta larunbatetan 20:00etatik aurrera.

☎ 943 88 08 00 - 626 91 80 76 ☎

JOAKIN ALDANONDO GARAJEA

MICHELIN zerbitzu ofiziala

Gurpil lanak, alineazioa, aluminiozko llantak
filtroak, olioak, engrasea
frenu pastilak, tubo eskapeak, bateriak
harezko txorrotadak

Errota Poligonoa IDIAZABALgo sarreran ☎ 943 18 72 57

Mutiloako Udala

MUTILOAKO SAN PEDRO JAIK

Urte osoan zehar hainbeste esperotako San Pedro Jaiak. Herritarroi jai zoriontsuak igarotzea opa dizuegu eta bertara hurbiltzen zaretenok disfruta ezazue herriak eskaintzen dizkizuen aukeraz. Denon artean giro jator eta alaia egin dezagula.

Aldi berean eskerrak eman nahi dizkiegu festak antolatzen parte hartu duten guztiei.

San Pedro jai zoriontsuak!

Jailetako ekitaldirik garrantzitsuenak

Ekainaren 28an emango zaie hasiera aurtengo festei, txerriaren jaitsiera eta altxafuego eta kanpai soinuarekin. Egun berean, hainbat herritan ohitura den San Pedro sua egingo da.

Hurrengo eguneko ekitaldirik garrantzitsuenak sagardo dastatzea da. Aurtengoan 27 sagardotegitako sagardoa dastatu ahal izango da, hasi Astagarraga eta Hernani aldekoetatik eta Tolosa inguruko etara pasa eta Goierri aldean daudenetara iritsiz. Sagardoa-ekin batera txorixo eta gazta pintxoak ere izango dira, ogiarekin nahiz taloarekin. Aseta geratu ezan oilasko errea ere egongo da. Gauari behar bezalako errematea emateko eta jandakoak apur bat jaisteko dantzaldia M-N ezten eta Trakets taldeekin.

Larunbatean herriko gazteen arteko sega apustua, nor baino nor gehiago. Aurten bi-

garrenez egingo da eta iaz bezala bikoteak, Bekotxe eta Sefe, Zabalo eta Iparreren izango dira. Entrenamenduetan hasiak daude eta gauzak bero-bero egotea espero da, bi bikoteak ere sasoirik onenean baitaude. Benetan ikuskizunak merezi du, animatzaileak eta txosna mobila ere bertan izango dira.

Igande arratsaldean ere bete-betea izango da. Pilota partidak eta ondoren herri kirolak Zurgai herri kirol taldearen eskutik. Aizkoran, tronztan, korrikan, aitzurrarekin egurra mozten arituko dira eta zerratokia era zaharrean ikusteko aukera ere izango da.

Errepetizio larunbata, uztailaren 7a, San Fermin eguna. Patata tortilla lehiaketa eta afaria izango dira. Giroa alaitzeko berriz, Trakets dantza taldea.

Iñaki Ugalde



Tere Arruabarrenaren lanak erakusgai

Tere Arruabarrena herritar margolariaren pintura lanak ikusteko aukera dago ekainaren 6tik uztailaren 4ra bitartean, Donostiako "Casino taberna kafetegian". Aipatutako erakustokia Donostiako Zurriola Etorbideko 24. zenbakian dago.

San Joan bezpera

Urtero bezala San Joan bezperan herriko plazan San Joan arbola jarriko da.



OSTATU

Jatetxea - Logelak

Festa onak pasa!

Tel.: 943 80 11 66 **MUTILOA**

KEMEN KIROLAK



Zumalakarregi, 1

☎ 943 88 51 68

ORMAIZTEGI

Lirain

Lurrindegia eta opari gaiak

San Inazio, 14 ☎ 943 889 390 **BEASAIN**
Garagartza pl., 1 ☎ 943 805 327 **ORDIZIA**



MUJIKA

Jatetxea

- ✓ Menuak kartan
- ✓ Ezkontza eta janaldietan berezituak

☎ 943 80 15 07 - 943 80 16 99
Liernia Auzoa **MUTILOA**

San Joan Pilota Saria

Dominguez eta Zabalok, Larraia eta Navaroren kontra eta Eguskizak eta Zabalak, Mikel eta Casadoren aurka, gaur, ekainak 22, 22:30ean, jokatu dituzten partiden ondoren jakingo da nortzuk lagunduko dieten 24ko finalean Castellanos eta Soloza-bali. 24an eta 5. eta 6. postuak jokatu dira finalaren aurretik. 25ean, berriz, promesen arteko partida (Mendizabal eta Gurrutxaga, Zabala eta Oteizaren kontra) eta afizionatuen arteko 3. eta 4. postua erabakiko dira. Guztiak Baratze Pilotalekuan.

Udarako aisialdia

Udalak antolatuta, 1etik 12 urte bitarteko haurrak, denbora libreko aktibitateetan (kirolak, jolasak, irteerak...) ari zeko aukera izango dute uztailearen 2tik 20ra. Begirale lanetan, Leire Tejados, Nora Imaz, Elisa Ferreira eta Elisabet Izagirre herritar tituludunak arituko dira. Ekainaren



Ardixarranen erakusketak

Ardixarrene etxean ikusgai izango dira ekainaren 24ra arte Kenduren 25. urteurrenko panel eta materialak, Joxemari Telleriaren margolanak eta dantza janzkerak. Gaur, ekainak 22, 19:00etatik 20:00etara zabalduko da. 23an 18:00etatik 20:00etara eta 24an, 12:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara.

Koadrilen arteko futbito finala

Maiatzean hasi zen futbito txapelketa ekainaren 23ko koadrilen egunean amaituko da. Finala 12:30erako dago iragarria Baratze pilotaleku ondoko gunean. Aurretik 3. eta 4.

posturako arituko dira 'Segurs' eta 'Robin Zurrut'. Final handia 'Ostegunean loto' eta 'Guk asteazkenean' taldeen artean jokatu da.



'Ostegunean loto'



'Guk asteazkenean'



'Robin Zurrut'



'Segurs'

29an dira gurasoekin bilera egitekoak. Informazio gehiago Udaletxean.

Adinekoak zaintzeko ikastaroa

'Adinekoei laguntza, harremana, komunikazioa' gaiaren inguruan etxekoentzat ikastaroa antolatu du Udalak, uztailearen 2tik 6ra (10 ordu). Gai emalea Amagoia Murua-mendiaren medikua izango da. Ordutegia zehazteko bilerak ekainaren 27an, 15:00etan, Udaletxean.

Igerilekua prest

Txukunketa lanak amaituta, ekainaren 26an irekiko da Oxiña igerilekua. Aurtengoan bertan lanetan Maria Anjeles Ariztimuño, Maite Ariztimuño eta Amelia Ferreira arituko dira. Abonuak, bertan eta udaletxean eskura daitezke.

Igeriketa ikastaroa. Dagoeneko 3tik 7 urte bitarteko 18 umek eman dute izena.

Ikastaroa uztailearen 9tik 27ra izango da 12:00etatik 13:00etara, Josetxo Elkororen ardurapean. Informazio gehiago Udaletxean.

Herri eskolako en erakusketa

Laiotz Herri Eskolako ikasleek ikasturtean zehar egin dituzten eskulanen erakusketa ere zabalik dago Kultur etxean, festetan zehar.

Preso eta iheslariak

Herriko bi iheslari eta euskal preso eta iheslarien alde zenbait ekintza burutuko dira festa egun hauetan. Koadrila egunean, 20:00etan herribuelta. Egun berean, San Joan suaren argitan, Euskal Herriaren itzala argitaratuko da.

Joseba Telleria

Ugaroko ikasleak etxean

Elkarte Autonomoak antolatutik Eskola Ibiltarien programaren barruan astebete zehar Kanaria Handiko irla bisitatu ondoren, Ugaroko bosgarren eta seigarren mailako 15 ikasleak berriro ere etxean dira. Bisitaldi hau maiatzaren 15etik 21era luzatu da. Egonaldian lagun izan dituzte Kadiz eta Badajozeko beste bi talde.

Lehen eguna, maiatzak 15, irlara iristeko izan zuten eta noski, hegazkinez: Bilbotik Barajasera eta Barajastik Kanaria Handira. Gaua, berriz, elkarren arteko ezagutzak egiteko.

Bigarren egunean, Arukasera joan ziren, ron izeneko edaria nola egiten zen prozesu guztia ezagutzeko. Ondoren, bertako mendixka batera igo ziren, han urrutian, Teide ikusteko. Jaisterakoan, neogotiko estiloko San Joanen eliza bisitatu zuten. Arukaseko biztanleek beren dirulaguntzarekin altxatutakoa, herri diruduna eta fedetsua omen baitzen. Goiza amaitzeko, biltoki batean, bananak, bananondotik hartu eta



gure etxeetaraino iristeko ematen diren urrats guztiak ikusi zituzten eta azkenik, banana janz ez zuten. Arratsaldean, Agateko kaian, katamaran bat oso gertutik ikusteko parada izan zuten. Gauean, talde bakoitzak bere aurkezpena egin zuen eta jarraian, opari truketak.

Hirugarren egunean, Botanika-baratzea zeharkatu zuten denbora luzean. Kaktoa, palmondoak, kanariar pinuak, dragoak... Benetan, Kanarietan bakarrik ikusi daitezkeen landare asko begiratzeko egokiera eduki zu-

ten. Handik, Bandamako sumendi galdara ikustera igo ziren. Arratsaldean, berriz, Zientzia Museoa beren gustuko esperimenduetan murgildu ziren eta bisita amaitzeko, taldeka planetarioan sartu ziren.

Ostiralean, Maspalomaseko dunatako hondarrak edeki astindu zituzten eta erabat nekatuta eta gosetuta, jatetxe batean bazkalduaz atsedena hartu zuten. Bazkalondoan, hondartza bainatu eta jolasak egin zituzten.

Larunbatean, Las Palmas hiriko alde zaharra ezagutzeko eguna izan zen. Asko gus-

Udaleku irekiak, ekainaren 25etik uztailaren 13ra

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako Lehen Zikloko hurrekin hiru asteko udaleku irekia antolatu da ekainaren 25etik uztailaren 13ra. Esperientzia honekin ikasurtearen jarraipena egin nahi da, bai euskararen erabilera bultzatzeko, bai ikasleen arteko harreman pertsonalen arloa lantzeko.

Astelehenetik ostiralean, goizeko 10etatik 1era, jokoak, antzerkia, irteerak eta abar burutuko dituzte, begiraleen gidaritzapean.

tatu zitzairen Kanario museoa. Bertan, guantxeen bizimodua nolakoa zen argi eta garbi azaltzen baitzen. Arratsaldean, Las Canteras izeneko hondartza bainatu eta opariak erosteko denbora izan zuten.

Igandean, Kanaria Handia irlako tontorra, Roque Nublo, zapaldu zuten. Ondo nekatuta, mendi magaleko zuhaitzen gerizpean bazkaldu eta nahiko jolas egin zuten. Egutero bezala, guaguan itzuli ziren aterpera.

HORTZ KLINIKA

Silvia Miras Casasayas
Odontologoa. 649 koleg.

Implantologia
Estetikazko odontologia
Haur odontologia
Helduen odontologia

San Ignazio, 8 B - 2. ezk.
943 88 92 87 BEASAIN

VOLVO
TOYOTA
ŠKODA
Volkswagen taldea

ANZIZAR, S.A.

Autoen salmenta
Mekanika eta
elektrizitatea

Beasain-Zumarraga, 46 Km.a
943 88 17 00 - 943 88 17 04
BEASAIN

UNTXUNDEI
garajea

OSINALDE
karrozategia

943 88 28 21
943 16 07 06
ORMAIZTEGI

Santa Isabel jaiak Aian

Ekainak 29, ostirala:

23:30ean: Erramun Martikorenaren kantaldia elizan. **Ondoren:** Dantzaldia Muganix taldearekin, goizaldera arte.

Ekainak 30, larunbata: haurren eguna:

12:00etan: Pilota partidak: herriko gaztetxoetan, Albisu-Altuna Arratibel-Arizmendi-
ren aurka; afizionatuetan, Garate Zubizarretaren aurka. **16:30ean:** Ume jolasak eta Poxpolo-Mokol pailazoak.

Ondoren: Sardina eta sagardo probaketa. **Gauean:** Gazte afaria, Brigada Kriminal rock taldearekin. **24:00etan:** M-n ezten taldearekin dantzaldia.

Uztailak 1, igandea:

10:30ean: Meza Nagusia. **Ondoren:** Eate abesbatza elizan. **12:30ean:** Kaxeta-Urkilaga txirrindulari proba. **17:30ean:** XVI. Dantzari txikien txapelketa. Euskadiko txapelketako 10 bikote hoberenak. **Ondoren:** Ataungo dantzari txikien saioa.



19:30ean: Saralegi anai-arreben erakustaldia. Mieltxo Saralegi harri jasotzen. **Gauean:** Agautz trikitilari taldea.

Uztailak 2, astelehena: Santa Isabel eguna:

11:00etan: Meza Nagusia. **12:30ean:** Aitor Sarriegi eta Bixente Gorostidi bertsola-

riak. Ondoren, herriko bertsolari gazteen saioa eta Agautz trikitilari taldea. **Ondoren:** Auzo bazkaria. **17:30ean:** Bertsolari eta trikitilarien bigarren saioa. **Ondoren:** Toka txapelketa. **Gauean:** Agautz trikitilari taldea.

Agurtzane Bikuña

Udako kirol ikastaroak

Ekainaren 23an amaitzen da izena emateko epea. 16 urte bitartekoentzako ekin-
tzak dira. Interesatuentzako telefona: 943180384. Ikastaroak:

- **Espeleologia:** Troskaetako koban, ekainaren 25etik 29ra. 10 ordu. 2.500 pezeta.
- **Eskalada:** Jentilbaratzan, uztailaren 2tik 6ra. 15 ordu. 2.500 pezeta.
- **Piraguismoa:** Agauntza errekan, uztailaren 9tik 14ra. 12 ordu. 2.500 pta.
- **Arku tiraketa:** Auzoeta kiroldegian, uztailaren 16tik 20ra. 10 ordu. 2.500 pta.

Otso Festa-01eko sariak

- **Soinketako sariak: Saiatuenak:** San Gregorion Lurdes Auzmendi, San Martinen Rosa Goñi. **Aerobikean:** Gregori Aldasoro. **Edadetuen artean:** San Gregorion Miren Goikoetxea eta San Martinen Bittori Arruabarrena.
- **Pilotan, eskuz:** 1. Aitor Etxeberria-Eneko Imaz, 2. Jon Dorronsoro-Eusko Sukia. **Frontenisean:** 1. Jon Dorronsoro-Aitor Arruabarrena, 2. Jon Urdangarin-Aitor Etxeberria. **Palaz:** 1. Otermin-Urdanpilleta, 2. Koldo Zaldua-Joxe Arrondo. **Tenisean:** 1. Koldo Zaldua-Niko Begiristain, 2. Aitor Etxeberria-Iban Urdangarin.
- **Badmiton:** San Martinen, 3. adineko-

ak: 1. Juli Mujika, 2. Bittori Arruabarrena. San Gregorion, 1. Miren Goikoetxea, 2. Juanita Munduate.

San Martinen, helduak: 1. M. Isabel Imaz-Iñia Maiza, 2. Arantxa Mujika-Itziar Eskisabel; San Gregorion, 1. M. Karmen Imaz-Maribel Auzmendi, 2. Lurdes Auzmendi-Rosario Urdangarin.

- **A.K.E. sari-banaketa: Saiatuenak:** AKEn, Estebe Auzmendi, AKE Zubikoetan, Maider Arruabarrena, AKE Bitor jatetxean, Xabier Etxeberria eta AKE Pilotan, Iraitx Goikoetxea. **Erregularrenak:** AKEn, Haritz Urrestarazu, AKE Bitor jatetxean, Eusko Sukia, AKE Zubikoetan, Ainara Aizpurua eta AKE pilotan, Asier Gonzalez. **Goleatzaileak:** AKEn Joseba Goikoetxea, AKE Bitor jatetxean, Jon Dorronsoro eta AKE Zubikoetan Beatriz Barriola. **Entrenatzai-**

learen saria: Asier Etxeberria. **Sari berezia:** Joseba Kerejeta.

- **Areto futboleko sariak:** epailea, Estebe Auzmendi, sari berezia Lokomotiv, talde kirolariena Lozomorro, txapelduna Jatdax eta bigarrena Artadi Indarra.

Musika eta dantza jaialdi bikaina

Bi urteko lanaren ondorio izan zen joan den ekainaren 9an herriko 70en bat haurrek eskaini zuten musika eta dantza ekitaldia. Nerea Barandiaran, Lurdes Lerma, Beñat Barandiaran eta Amaia Zubeldia dira pianoa, soina, gitarra, trikitixa eta panderoko berrogeiren bat haur eta gazteren irakasleak. Doltza Arkarazok du, bestalde, Otsoa dantza taldearen ardura.



1. Elkarleen arteko mus txapelketan Ana Mari Crespo eta Pilar Larrea (Artadi elkarlea) izan ziren txapeldun. Beraien alboetan txapeldunordeak, Joxemari Goikoetxea eta Kepa Arizmendi (Aizkoate elkarlea).

Lazkao euskarari bizia emanez

Lazkaon euskara non, nork edo zertarako erabiltzen den jakin nahian, ikerketa bat burutu du Udalak, Siadeco ikerketa elkartearekin batera. Lazkaon euskarak bizi duen egoera zein den ezagutu eta euskararen normalizaziorako hainbat egitasmo bultzatu nahi dira ikerketa honekin.

Ikerketa honen oinarria herriko jendeak euskara non eta noiz erabiltzen duen neurtez egin da. Datu hauei begirata, Lazkaoko emaitza nahiko baikorra izan da, biztanleriaren ia hiru laurdenak daki euskaraz. Lazkaoko euskaldunen proportzioa Ordizia edo Beasain bezalako herrie-

takoa baino handiagoa da, eta Goierriko euskaldunen portzentajetik gora dago. Gazteei dagokionez, berriaz, %90ek ezagutzen dute euskara.

Baina herria euskalduntzeko jendeak hizkuntza hitz egiteaz gain, kaleetako errotilu eta seinaleak ere euskaraz irakurri ahal izatea ere oso garrantzizkoa dela uste du Siadeco ikerketa elkarteak. Hori dela eta, Lazkaon euskaraz dauden idazki ofizial eta errotilu komertzialak zenbatu dituzte. Neurketaren arabera Lazkaoko hizkuntza paisaia osatzen duten kartelen %30 gaztelania hutsez dago.



Baina Siadeco ikerketa taldearen iritziz, herriaren euskalduntzean zerbitzuek betetzen dute paper esanguratsuenetako bat. Beharrezkoa omen da, lazkaotarrek herriko denda, taberna edo ile-apaindegietan, besteak beste, euskaraz egiteko aukera izatea. Hirugarren sektorearen ia hiru laurdenetan bezeroei euskaraz hitz egiteko gaitasuna dute. Hala ere, herriko zerbitzuetan euskararen erabilera sustatzeko, etorkizunari begira, euskararen aldeko konpromisoa hartzea eskatu du Siadeco elkarteak. Herriko

%91ak sinatu du konpromiso hau.

Dagoeneko ikerketa egin da, baina oraindik badago zer eginik. Lazkaoko udalak eta Siadeco ikerketa taldeak lortutako emaitzak herritarrengana helarazi nahi ditu. Emaitzekin panel informatiboak egin eta erakusketa moduko bat antolatzea pentsatu dute. Horrela, Lazkaoko herria euskaldundu eta jendeak euskaraz hitz egiteko ohitura har dezan lortu nahi du Lazkaoko udalak.

Oihana Sarasola

Jende ugari musika eskolako kontzertuan

Hiru urte hauetako lehen kontzertua eskaini dute Lazkaoko musika eskolako haurrek. Baina izandako harrera ona ikusita ziur berriro ere antolatuko dutela! Ekainaren 15ean ospatu zen kontzertua Maizpide euskaltegiko aretoan, eta hura jendez betetzea lortu zuten. Gitarra, piano, soinu eta trikiti doinuak izan ziren entzungai, musika klasiko eta euskal abestiak interpretatuz. Trikitixari laguntzeko Lazkaoko Oin Arin dantza taldeko hiru dantzari ere izan ziren bertan. "Saltsa berezia" sortu zela kontatu digu Nerea Barandiaran, musika eskolako irakasleetako batek.

Lazkaoko musika eskola orain hiru urte jarri zen martxan. Herrian horrelakorik ez zegoela eta, Nerea Barandiaran berak izan zuen musika eskola sortzeko burutazioa. Egun, Lazkaoko musika eskolan 25 haur inguruk ikasten dute instrumenturen bat jotzen. Bost urtetik goira has daitezke haurrak musika ikasten, eta ez dago adin mugarik. Horrela Lazkaoko musika eskolan 72 urteko gizon

bat ere badago musika ikasten. Hau adibidetzat hartuz, jendeari animatzeko gomendioa luzatzen diote musika eskolatik.

Lau irakasle daude eta soina, trikitixa, gitarra eta pianoa ikasi daitezke bertan. Nerea Barandiaran berak kontatu digunez, azken bi instrumentuak jotzen ikasteko omen dago jende gehien, baina hala ere, Nereak dioenez, honen arrazoia zera da: trikitixa edo soinua ikasteko toki gehiago daude, eta ez ordea, gitarra edo pianoarentzako.

Hiru urte hauetako emaitzarekin pozik daude irakasleak, baina hala ere, jende gehiago animatzea gustatuko litzaieke. Aipatu bezala ostiralean eman zuten lehen kontzertua Maizpiden. Instrumentuak bakarka eta taldeka entzuteko aukera izan zen ordu t'erdi inguru iraun zuen kontzertuan. Bertan zegoen jendetza ikusita, hurrengo urtean, beste kontzertu bat antolatzeko gogoia ere piztu zaie Lazkaoko musika eskolako haur eta irakasleei.

Gerriko ikerlan beka

Ekainaren 29an aurtengo Gerriko Ikerlan Beka nori emango zaion jakingo dugu. 8 proiektu aurkeztu dira lehiaketa honetarako. Epaimahaiak saritua zein den erabaki eta proiektu hori garatzeko urtebeteko epea emango zaio irabazleari. Orain arte, bukatutako lanak aurkezten ziren sariketa honetara, baina aurtengoan, Gerriko Ikerlan Bekaren X. edizioan, aldatu egin dute: hamabost orritako proiektua eskatu dute, eta sarituak baino ez du ikerketa lana egin beharko. Sari banaketa ekainaren 29an izango da, 20:00etan udaletxeko areto nagusian.

Erakusketa: Ganges ibaia

Himalaian sortu eta Bengalako badiari itsasoratzen deneraino 2700 kilometroko ibilbidea egiten du Indiako ibai sakratu honek. Bere ibilbide luzeko hainbat tokitan bildutako argazki eta testu multzo batekin erakusketa antolatu du Angel Cuerdo Galarragak Lazkaoko erakusketa aretoan.

Ormaiztegi

Uda hasierarekin batera gure herrian San Joan ospakizunak eta Lierniko erromeria ospakizun garrantzitsuak izaten dira. Lierniko erromeria uztailearen 8an izango da eta hurrengo alean emango dugu egitarau zehatza.

Ekainaren 22 eta 23an San Joan ospakizunei dagozkien ekintzak ospatuko dira.

Ekainak 22, ostirala:

19:00etan: Txindata Musika eskolako ikasleen kalejira. Musika eskolako ikasleek ikasturte amaiera dela eta herria trikitixa, pandero, esku-

soinuz eta abarrez alaituko dute. Amaieran partaideei ogitarteko eta edariak banatuko zaizkie.

Ekainak 23, larunbata: San Joan bezpera:

21:00etan: Txindata Musika Eskolako trikitilari taldeak alaituriko giroa buruhandien laguntzaz herriko enparantzan. **21:30ean:** Txantaia altxatzea. **22:00etan:** San Joan suaren piztea, txalapartariak alaituriko giroan. **Ondoren:** Herriko trikitilariak alaituriko giroa.

Aitziber Murua



10 hurrek egin dute lehenengo jaunartzea

Ekainaren 10ean herriko hamar hurrek hartu zuten lehenengo jaunartzea, Ander Deunaren parrokiaren izan zen eguerdiko 12etako elizkizunean. Aurtengoan lehenengo jaunartzea egin duten hurrek 9 neska eta mutil 1 izan dira: Ainhoa Aldasoro, Maialen Aseginolaza, Igor Azpiaz, Ane Berasategi, Amaia Eskisabel, Garazi Ezkurdia, Leire Irizar, Maria Leturia, Garazi Ruiz de Azua eta Ainhoa Urreta.

Zerain

San Joan

San Joan bezpera, ohi den legez ospatzeko asmoa da aurreten ere eta horretarako preskakizunak martxan dira jadanik. Festa, arbola zutitzearekin hasiko da, ondoren sua piztu eta bere inguruan herriko talde batek, bereziki hau-

rrek, dantza egingo dute, ondoren mokadutxo bat izango da. Hau dena herriko plazan 20:30ean ospatuko da.

Barnetegia

Uztailaren lehen hamabostaldian Udal Euskaltegiek antolatutako barnetegia izango da Zerainen. Aurreko urteetan bezala aurreten ere Arizti Erdi aterpetxean izango dute beren ostatua, bertara etorriko den hogeita hamar lagun inguruko taldeak. Uda-

ko barnetegi honek besteak beste, euskara maila hobetzea izaten du bere helburua eta horretarako ikastorduz kanpo beste hainbat ekintza ere burutzen dituzte herritarrekin batera eta herrian uda giro berezia nabaritutako da.

Uda 2001

Kultur Elkartek, udako barnetegiaren antolatzaileekin, elkarlanean, egitarau zabala prestatu dute uda osorako. San Joan bezperan hasi eta

irailaren erdira arte. Bertan hitzaldiak, diapositiba emanaldiak, bertso afaria, ipuin kontalariak, dantzaldiak etab. Aldian aldiko esku programak zabalduko dira.

Bolatako kontuak

Ekainaren 9an, Laudion, jokatu zen, Euskadiko Bola Txapelketan Antonio Alustiza zeraindarra 4. postuan geratu zen 179 birlarekin.

Mari Flor Mendizabal



MUJIKA



BEASAIN ☎ 943 88 74 00

"Eguneroko ogia, ogi bereziak eta pastel ezin hobeak"



K. Nagusia 35 Elosegi, 14 Sta. Maria, 19
 ☎ 943 88 77 58 ☎ 943 88 72 79 ☎ 943 16 00 44
 BEASAIN LAZKAO ORDIZIA



● Iturgintza
 ● Berogintza

Mendi-Ondo etxea Esteban Lasa, 7
 ☎ 943 88 40 57 ☎ 943 88 80 29
 ZALDIBIA BEASAIN



1.437 milioiko aurrekontua onartua

Berandu izan bada ere, maia-tzean Udalak egindako pleno-an 2001 urteari dagokion aurrekontua onartu zen, 1.437 milioi inguruko aurrekontua hain zuzen, sekula onartu den handiena. EAJ-EA eta EB alderdiek eman zuten aurrekontu honen aldeko euren botua.

Kopuru hori guztia honela banatuta geratzen da: Udaleko gastuetarako 1.186 milioi, San Jose Zaharren Etxearentzat 261 milioi, Herri Antzokiarentzat 22 milioi eta Majorri Kiroldegiarentzat 119 milioi. Besteak beste, inbertsioen atalerako 300 milioi ezarri dituzte eta gainontzean Kutxari erositako lokala ordaintzeko 44 milioi, hilerrian 15 milioi, hiriguneko berrikuntzetarako 41 milioi, 15 Herri Antzokia berritzeko, 36 milioi kiroldegia handitzeko, Montañitako parkerako 17 eta Domingo Unanue zenaren etxea berritzeko 50 milioi pezeta aurreikusi dira.

Garagardo festa

Iaz izandako arrakastarekin jarraitu asmoz garagardo festa antolatu dute berriro ere errugbi taldekoek. Iaz udazkenean egin bazen ere, ego-kiago ikusi da aurten udan egitea eta horrexegatik ekainaren 28, 29, 30 eta uztailaren 1erako antolatu dute. Iazko eskarmentua izanda eta

aurten garagardoa edateko eguraldi hobea izango delakoan gonbitea egiten diete errugbi taldekoek guztiei inguratu daitezen aipatu egunetan Pilotaleku estalira, bertan hainbat garagardo mota desberdinez gain zer jana eta giro ederra ere izango direlako. Ekintzaren bat ere egiteko asmoa badute.

Saskibaloitxapelketa

22 taldek eman diote hasiera hogeigarren koadrila arteko saskibaloitxapelketari. Ohi bezala neurketak astean zehar jokatu dira ilunabarrean eta finalak Jai Nagusiak iristearekin batera jokatu dira.

Idazle sarituak

VII. Kimetz Literatura Sari-ketako irabazleei orain gutxi egin zitzaion sari banaketa. Aipatu aurtengoan 119 lan aurkeztu direla, 21 euskaraz eta gainontzekoak gaztelerez. Euskarazkoan Bilboko Laida Martinezen lanarentzat izan da lehen saria eta gaztelera-koan Madrilgo Juan Carlos De La Calleren lanarentzat. Lan gehienak emakumeek idatzitakoak izan dira, 66 hain zuzen ere.

Euskarazko ikastaroak

Udalak jakinarazten du %50eko dirulaguntza eman-go diela udako euskarazko ikastaroak egiten dituzten

Otegi-enea eta Majoriko jaiak

San Joan jaiak ospatuko dituzte bi auzootan, asteburuan. Egitaraua hauexek duzue. **Ekainak 22, ostirala:** 17:00etan, txupinazoa, 17:30ean, haur krosa, 18:00etan, auzoko jubilatuen arteko toka, 22:30ean, Kiñu taldearekin dantzaldia. **Ekainak 23, larunbata:** 10:30ean, umeentzako marrazketa, 12:00etan, Kiki-Koko-Moko eta Flax, 12:30ean, Laguntasuna Errondaila, 16:00etan, haur jolasak, 17:30ean, Urdanetan dantza taldea, 17:30ean, arku tiraketa, 19:00etan sardina jana, 22:00etan San Joan sua, 22:30ean Muxutruk taldearekin dantzaldia, 00:30ean, moxorrotuen lehiaketa eta 02:00etan, Mutuo desprecioarekin rock kontzertua. **Ekainak 24, igandea:** 10:00etan, artisautza erakusketa, 13:00etan, Umore ona abesbatza, 16:00etan, toka, 16:30ean, Donosti galiziar taldea, 17:30ean, Gorriti eta bere abereak, 20:00etan, Kiñu taldea eta 23:00etan, sardinaren ehorzketa.

San Joan sua

Udan sartzearekin batera, su ondoan dantzan egiteko ohiturei atxiki eta San Joan sua ospatuko da larunbatean, ekainaren 23an. Irriki Kultur Elkarteak Gaztetxearekin batera antolatu ditu aurtengoan aipatu gauerako ekitaldiak *"oraingoan ere udalak ez baitigu ia ezertan lagundu, ozta-ozta sua egiteko lekua utzi digu eta kiñu, suaren inguruan jartzeko hesiak ere ukatu egin dizkigu. Ordiziako Udalak hau antolatzen dirurik ematen ez duenez errifak atera behar izan ditugu aurten ere"* antolatzailen esanetan. Oztopoak oztopo iluntzeko 10,30etan eman-go zaio su pinu-adarrez egindako piloari eta ondoren, hilabete guztian hainbat entsegu egin ondoren, suaren inguruan dantzan arituko dira zenbait gazte.

langabe edo ikasle ordiziarrei, bai Udako Euskal Unibertsitatean zein Euskal Herriko Unibertsitateko uda ikastaroetan. Honela bada, inprimakiak behar dituenak eskuragarri izango ditu udaltzeko bulego nagusian edota euskara zerbitzuan. Era berean, bertan jasoko du aurkeztu beharreko agirien berri.

Neska futbolarietako deia

Futboleko aritu nahi dutenei deia luzatu nahi die Ordizia K.E.ak. Hain zuzen ere 1985 urtea baino lehen jaiotako neskei zuzenduta dago deia eta interesatuek uztailaren 13an Altamira Futbol Zelaira

joatea besterik ez dute. Bertan, arratsaldeko 7,30etan entrenamendu saioa egingo da eta komeni da kirola egiteko arropa aproposa eramatea. Informazio gehiago nahi izanez gero deitu 943-162477 telefono zenbakira (Pedro).

Era berean Ordizia K.E.ak uztailaren 5ean Barrenan egingo duen batzar orokorreko deialdia ere egiten die bazkide guztiei. Bertan, urteko gestioaz gain, datorren denboraldirako aurrekontua eta estatutu aldaketaz ere hitz egingo da. Lehen deialdia arratsaldeko 7etan izango da eta bigarrena 7,30etan.

Aitor Calvillo

IPARRAGIRRE ANAIAK, C.B.

KARROZATEGIA

Hiribarren, 24

☎ 943 88 95 83

LAZKAO

HERBALIFE

Pisuaeren kontrolean eta larru azalaren zainketan berriena
Kontsulta dohainik eta etxean entrega

Deitu zure banatzaile independenteari
☎ 943 884 560 ☎ 943 881 260 ☎



Berrikuntza lanak udalaren zenbait eraikuntzatan

Gabiriako Udala zenbait lan eta obra aurrera eramatekotan da datozen hilabeteotan herri-jabetzako hiru eraikinetan: Etxeberri etxeko lokaletan, Aztiriako eskola zaharretan eta herriko ostatuan.

Mediku-kontsultaren aldameneko lokaletan aldaketa batzuk egingo dira, sarbide berria egokitzeko asmoa baitago. Orain arteko sarrera sendategirako bakarrik geratuko da eta jangela zaharretarako berria jarriko dute martxan, lehendik badagoen atari txikia berrituz eta pasabidea txukunduz. Honela, eskulak egitera edota beste hainbat zereginetara datozen eskolaumeek ez dute anbulatorioko atetik ibili beharrik izango, geletara irispidea kanpotik zuzenean izango dute-eta, bai batzuentzat bai besteentzat honek dakartzan abantaila guztiekin.

Aztiriako auzoan ere burutuko dira lanak, kasu honetan azpiegitura hobetzeko. Ur zikinak bideratu eta bilduko dituen kolektore berria eraikiko da, aztiriarrak agertutako beharra udal arduradunek aztertu eta gero. Aztiri Erretegiko erabilitako urak araztuko dira biltegi honetan.

Azkenik, herriko Ostatuan dagoeneko amaitzean dituz-

ten zenbait berrikuntza aipa daitezke. Komun berriak egin dira, lehengoak erabat aldatuz. Bertan elbarri-aulkidunek erabiltzeko moduko ezaugarriak eta baldintzak dituen gela ere jarri da, besteak beste, eta baita publikoaren eremutik aparte zerbitzuko pertsonalarentzat izendatutakoa ere, legediak hala eskatuta. Gainera, etxearen atzeko aldean berokuntza-galdararentzat, parrilarentzat eta biltegitarako gela txiki pare bat altxa dira.

Bestalde, herriko tabernaren ustiaketari dagokionez, beste bi urterako luzatu zaie



Endika Igartzabal Murua eta Eñaut Asurabarrena Bidegain mutikoez ekainaren 3an egin zuten jaunartzea.

Martin Irazustabarrena eta Maribi Dorronsoro ostalariei orain bost urte sinatutako kontratua, aurturaren amaieran baitzaie haren epe-muga.

San Joan bezperako sua

San Joan eguna igande honetan denez, bihar larunbata, ekainaren 23a, piztuko da herrian ohiturazko su magikoa.

Ilunabarrean emango zaio su metari, kanpai-bueltakoen oihartzunarekin batera izpiritu txarrak eta sorginkeriak uxatzeko balioko duelakoan.

Ikasturte amaiera Balentzategi eskolan

Ekainaren 10ean ospatu zen Bergarako Angiozar auzoan aurtengo Eskola Txikiaren Eguna. Bertako jaialdian parte hartu zuten herriko eskolakoek. Eguerdian herri txiki guztietako eskolaumeek saio bana eskaini zuten, tartean gabiriarrak Sorgin dantza plazaratu zutelarik, eta ondoren lagun arteko bazkaria eduki zuten guraso, irakasle eta adiskideekin.

Ikasturteari agur egiteko eskolako ikasle guztiek Lizarrara egin dute urte bukaerako bidaia aste honetan bertan, bi eguneko egonaldiarekin oporrei ongi etorria egiteko. Hogeita bateko ikasle taldeak lauk irtengo dute aurturaren, seigarren maila amaituta.

Aimar Maiz

Labur-labur

● **Festak** konturatu orduko ganean ditugula eta, udaleko kultur batzordea egitarauaren mardulena prestatzen hasia da. Ekainaren 5eko bileran festa-egunak zein izango diren erabaki zen: abuztuaren 12, 14, 15, 16 eta 17an ospatuko dira jaiak. Hurrengo bilera, azken hari-muturrak lotzeko, uztail partean izango da, eguna zehazteko badago ere.

● **Herri-kirol jaialdiak** bere lekua izango du egitarauan, iaz bezala. Probak prestatu, langintzak banatu, taldeak osatu eta entrenamendua egiteko saio bat burutuko da datorren hilean.

● **Renfek** antolatzen duen **marraski lehiaketan** sarituak izan dira bi herritar; Endika Igartzabalek lehen saria lortu du eta Jon Ander Larrañagak bigarrena euren adin-mailetan. Trenetik ikus daitekeen edozein gai marraz zitekeen, eta biek Ormaiztegi zubiak margotu dituzte. Donostiako geltokian egin zen joan den larunbatean oparien banaketa-ekitaldia, bi pintore gazteen prozerako.

LOINATZ

**Taberna
Jatetxea**

Bazkari, afari,
ogitarteko, pintxoak

☎ 943 88 20 07

Nagusia, 27

BEASAIN



Goierri Bus

*Segurtasun eta kalitatezko
zerbitzua*

Tel.: 943 72 52 50

Fax: 943 72 53 70

Mota guztietako autobusak

19, 29, 55, 60 eta 82 plaza-
takoak
Literadunak komunarekin



Nolako herria nahi dugu?

Aurrera begira jarri eta gogo-
etarako proposamena egin
die Udalak idiazabaldarrei.
Hemendik 10-15 urtera Idia-
zabal nolakoa izango den ze-
hazteko oinarriak, orain jarri
behar dira. Erabakiak, berez,
Udalak hartuko ditu. Horre-
tarako garaia iristen denean,
ordea, herritarrek zer pentsa-
tzen duten jakin nahi dute.
Antton Irizar alkatearen esan-
netan "ze herri klase nahi
dugun zehaztu behar da".
Udalak proiektuak gauzatu
ahal izateko gauzak garbi
eduki nahi ditu.

Jaurilaritzak eta Diputa-
zioak Lurralde Antolamen-
durako Ildoak zehaztuta di-
tuzte dagoeneko, horietan,
alkatearen esanetan "Idiaza-
bal kanpoko herrietan sar-
tzen ez direnen bizileku mo-
dura agertzen da". Herrita-
rrak horrekin ados dauden
ala ez esan beharko lukete.
Horrek besteak beste etxebi-
zitza gehiago eraikitzea esan
nahiko lukeelako.

Erabaki beharreko kon-
tuen adibide zehatzak ere ba-
daude. Irizarren arabera "Li-
ma fabrika dagoen lekuan 60

*txalet egiteko proposamena
jaso du Udalak duela gutxi.
Oraingoz ezezko erantzuna
eman dugu, baina interesga-
rria izango litzateke herrita-
rrek zer pentsatzen duten ja-
kita". Jendearen nahiak
kontuan hartuko lirateke era
berean Hirigintza Arau be-
rriak onartzerakoan.*

Duela 14 urte onartutako
arauak daude indarrean gaur
egun. Orduan etxebizitzak
egiteko aurreikusi ziren leku
gehienak beteta daude. Be-
rriro ere "non eraiki eta non
ez erabaki beharrean gau-
de", dio Idiazabalgo alkate-
ak. Etxebizitzarekin batera,
industriari zer nolako lekua
egin behar zaion ere zehaztu
nahi dute, "industria herrira
gehiago gerturatzen utzi be-
har dugu, edo orain bezala
Segura alderako bidean segi
behar du mugak?" galdetzen
dute Udaletik.

Horrelako gaiei buruz he-
rritarrek zer pentsatzen duten
jakiteko talde bat eratu nahi
du Udalak. Horretarako etxe-
etara helarazi duten inkesta
txikia bete eta Udaleko gutu-
nontzian utzi daiteke.

Futbola

Arizkorretan aritzen diren taldeek denboraldia bukatu dute
dagoeneko, Kirol Elkartearen esanetan taldeak bikain aritu
dira.

Regional mailakoak sailkapen fasean hirugarren geratu
dira eta Igoera fasean zazpigarren. Luka Eziolaza izan da go-
legile nagusia (11 gol sartu ditu).

Jubenilak ligan bederatzigarren postua eskuratu dute, gol
gehien (15) sartu dituen Ander Serrano izan da.

Kadeteak sailkapen fasean hirugarren postua lortu dute
eta igoera fasean laugarrena. Taldeak kadeteen bigarren mai-
latik lehendabizikora igoera lortu du. Joanes Berasategi 28
gol sartuta zerrendako lehendabizikoa da.

Infantilek lehen fasea bostgarren postuan bukatu zuten
eta bigarren fasea seigarrenean. Alex Arregi izan da golegile
nagusia (12 gol).

Sanjoanak

Larunbat honetan, hilak 23,
egingo dira herrian San Joan
suaren inguruko ospakizu-
nak. Aurten, plazan egingo
da jaia, aurreko urteetako le-
kuan etxebizitzak egin baiti-
tuzte. Gazte Asanbladak an-
tolatu du San Joan bezpera-
rako jaia. Afaria, sua eta ha-
ren bueltan egindako dantzek
osatuko dute egitaraua.

Uda Kanpaina

Uda kanpainaren baitan hau-
rrentzako eta helduentzako
ekitaldiak antolatu dira. Ize-
na emateko epea ekainaren
26an bukatuko da. 3000 pe-
zeta ordaindu behar dira,
Udaletxean edo Kultur Etxe-
an izena ematerakoan.

Bielorrusiarrek

Pentsatutakoa baino bi egun
beranduago, baina iritsi dira
Bielorrusiako 9 haurrak.
Abuztuaren 5era arte izango
dira herrian. Beraiekin, iazko
arduraduna etorri da.

Artisau eguna

Uztailaren leian, ospatuko da
aurten II. Artisau eguna, pla-
zan, 10:30etik 14:00etara eta
16:30etik 19:30era, 20 arti-
sauen lanak ikusi eta eroste-
ko aukera izango da. Horien
artean, herritar bat izango da:
Maite Mujika margolaria.
17:00etan, dantzarien jardun-
a izango da. Udaleko Kul-
tura batzordeak antolatzen
du eguna.

Xabier Urteaga



ZEGAMA

OKINDEGIA

*Eskuz egindako
ogi naturala*

☎ 943 80 10 66

Olaberria Kalea, 6 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasainen: Montoia harategia, Erosle, Oskarbi,
Haritza, Osiña.

Ordizian: Altamiran, Martina Bustuntzan,
Osasun belardenda, Muño denda Urdanetan

Zegaman: Kooperatiba, Maria Jesusen denda,
Arrondo.

Segurako Erosle, Idiazabalgo Ahizpak eta
Ormaiztegiko Iñaki Erosle.

YARZABAL, S.L.

Zurgindegi mekanikoa

AURREKONTUAK KONPROMEZURIK GABE

Txindoki, 1. - 3-2 Pab. - ORDIZIA

Tfnoa. eta Faxe: 943 88 90 17

**ATEAK
LEIHOAK
ESKAILERAK
ARMAIRU ENPOTRATUAK
OBRAK
ERREFORMAK**

OINETXE

oinetako konponketa



Ordutegia: 6:00-14:00 eta 16:00-20:30

Kale Nagusia, 44 Tel.: 943 88 90 89
BEASAIN

Nagusilan erretiratu boluntarioak lagun gehiagoren bila

Ongizate Sailak bultzatuta, iazko urrian jarri ziren martxan, beharrean dauden herriko zaharrei lagundu asmoz. Dohaineiko zerbitzua eskaintzen dute. Taldea 11 boluntariok osatzen dute, 7 gizonezko eta 4 emakumezko eta laguntza jasotzen dutenak 9 dira momentuz, 63 eta 93 urte bitartekoak. Laguntza jasoko luketen gehiago ere badaude, ordea, eta batez ere emakumeak. Nagusilanezkoek deialdi bat egin nahi izan dute boluntario gehiago anima dadin eta batez ere emakumezkoen beharra sumatu dute, lagun-

tza behar duten pertsona guztiengana iritsi daitezen.

Beharrean dauden adineko jendeari laguntzeko prest daudenak dira Nagusilanezko boluntarioak. Batez ere, kalea irten ezin direnei laguntzen diete. Zaharren eta behartsuenen bizitza hobetzea dute helburu, bakardadean daudenei lagundu; etxean, Zaharren Egoitzan edo kalean konpainia eginez. Prentsa irakurri edo besterik gabe, beraiekin hitz egin.



Ez da inolako baldintza berezirik bete behar boluntario talde honetan partaide izateko. Aurrez formakuntza ikastaro bat eskaintzen zaie. Taldearekiko loturak ez du inondik ere, norberaren eguneroko eginbeharrak baldintzatzen. Astean behin edo bitan laguntzen dute. Denbora libre pixka bat eta batez ere gogoia izatea nahikoak dira.

Orain arte esperientzia ezin hobea izan dutela adierazi digute, eta laguntza jasotzen dutenek ere asko esker-tzen diete.

Animatzen bazarete beraz astelehenetik ostiralera goizez telefono honetara dei dezakezue: 943 028075. Zuen laguntza eskertuko dute Nagusilanezkoek eta batez ere beharrean zain daudenek.

Hauek dira Nagusilanezko laguntza eskaintzen ari diren herritarrik: Cruz Aldama, Trini Barandiaran, Patxi Berasategi, Angelines Caballero, Crescencio Callejo, Enrique Garcia, Jose Joakin Lasa, Alfredo Ruiz, M^a Jesus Iribarri, Emilio Valles eta Lucia Zarraga.

Nekane Altuna

Jolas parkea Berritsu ludotekaren eskutik

Haurrentzako ekimen berezia antolatu du Berritsu ludotekak ekainaren 29rako. Herri kiroletan oinarrituriko jolas parkea muntatuko dute Kulki gazteiztarrek.

Artzainen bizimoduaren inguruko jolasak eta kirolak izango dira arratsaldeko 6etatik aurrera Gernika pasealekuko frontoian. Arkume garraioa, harri iraulketa edo larre aldaketak egin beharko dituzte bertaratzen diren haurrek. 'Anikote' edo 'Kalba' jolasak ere izango dira beste jolas batzuen artean.

UEUrako subentzioak

Udako Euskal Unibertsitateak antolatutako udako euskarazko ikastaroen berri jakin nahi duen edonork, Udaletxeko Euskarazko zerbitzuan aurki dezake informazioa edota 943 028063 telefonora deituta emango zaio. Beasaingo Udalak ikastaro horietarako diru-laguntzak ematen ditu. Laguntza horiek jasotzeko lehenik UEUko ikastaroetan matrikulatu behar da eta ondoren, uztailaren 12ra bitartean eskaerak Udaletxean aurkeztu behar dira, horretarako dauden inprimakiak beteta.

San Joan jaiak

Betidanik egin dute saiotxo bat Ostadar dantza taldekoek San Joan gauaren inguruan, egunari dagozkion piezak dantzatuaz. 21:30etik aurrera ikusi ahal izango ditugu Gernika pasealekuan, lehenik San Joan dantza eginaz eta Gipuzkoako piezekin jarraituz. Ondoren, Euskal Herriko herrialde ezberdinetako dantzen nahasketa bat izango da. Bizkaiko banakoaren ostean erromeria egingo dute Ostadarrekoek betiko arin-arin, fandango eta korrukuekin. 22:30etan etxafuegoen jaurtiketa ondoren Abaki taldeak dantzaldia eskainiko du.

San Pedro jaiak

Ekainaren 28an, San Pedro bezperan, Ezkiaga auzoko bizilagunak jai giroan ibiliko dira. Arratsaldeko 5etan buruhandiak aterako dira Auzoko kaleetan giroa jartzera. Ondoren, 'Alizia bitxikerien lurraldean' txotxongilo emanaldia eskainiko dute arratsaldeko 6etan. Iluntzeko 8etan, auzoan ohikoa den sardina eta txistor jana izango da trikitilariak giroturik. Gaueko 10,30etan San Pedro sua piztuko dute Auzo Elkartekoek.

6 HILEBETERAKO
UKIPEN-LENTEAK

14.900 PTA.N
BAKARRIK
89,55€

Multilens Pack Berria

Eta gainera, bidai POLTSA BAT OPARI

Multipackean hauek sartzen dira:
Hilean behin aldatzeko Multilens lenteen 2 kaxa, Multidisoluzio bakarreko edo Multibio Pluseko 2 pote eta lenteak gordetzeko 2 kutxatila.

MULTIOPTICAS

LARRAÑAGA

BERGARA • ARRASATE • ORDIZIA



3 hilabeteen ordaindu errekararik gabe
www.multiopticas.com



**BAUSCH
& LOMB**
**CIBA
Vision**
A Novartis Company
www.cibavision.es

Promozioak 01/08/31ra arte edo opariak bukatu arte iraungo du.

R.P.S. N° 16499



MULTIOPTICAS

**Zergatik uko egin
ondo entzuteko
aukerari?**



Entzumen-arazoek isolatu egiten gaituzte

Ondo entzutea ezinbestekoa da
bizitzaz erabat gozatzeko

Entzumen-arazoentzat konponbideak aurkitzen ditugun Audioprotesista adituak gara, eta alde horretatik, premiarik baldin baduzu, irtenbiderik egokiena, erosoa eta diskretuena eskainiko dizugu.

Ekainaren 25tik 29ra, bitartean, entzumenaren azterketa egingo diegu dohainik eta inolako konpromisorik gabe hala egin nahi duten guztiei.

ETA JASO EZAZU OPARI EDER BAT!

ESKA EZAZU HITZORDUA ALDEZ AURRETIK



GAES

ENTZUMEN ZENTRUA

ORDIZIA

MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

J. M. Barandiaran Enp.

943 88 99 88



R.P.S. N° 16499 I.L.G.



EHNA egiteko aukera San Joan bezperan

Udala Euskal Herriko Nazio-
tasun Aitormena (EHNA) es-
kuratu ahal izateko tramiteak
egiteari ekingo dio, Udalbil-
tzaren bitartez. Ekainaren
23an, 17:00etatik 19:00ak bi-
tarte, herriko plazan jarriko
diren mahaietan egongo da
inprimakiak betetzeko auke-
ra. Hala ere, bihar plazara
azaldu ezin duenak, astean
zehar egin ahal izango du.

Bide batez, Euskal Norta-
sun Agiria (ENA) eta Euskal
Herriko Naziotasun Aitorme-
na (EHNA) gauza ezberdinak
direla gogorarazten die Uda-
lak herritarrei; ENA, ekimen
pribatu batek martxan jarrita-

ko agiri bat da eta nortasuna
adierazteko balio du. EHNA,
berriz, Udalbiltzak martxan
jarritako agiri bat da, eta nort-
tasuna adierazteko balio izate-
az gain, euskal herritartasu-
na aldarrikatzeko balio du.
Informazio gehiago izateko
deitu udaletxera: 943 880357

EHNA egiteko ekarri be-
harrekoak: 3 argazki, Kutxa
edo Laboraleko ordain-agiria.
2000 pezeta sartu behar dira
hauetako kontu korronteren
batean. Laborala: 3035 0235
28 2350014890. Kutxa: 2101
0103 41 0011078864.

Errola-agiria. Udalean
bertan eskatu.

Mikel Urdangarin

Ekainak 22, ostirala, 22:30-
ean Mikel Urdangarin
kantaldia izango da herriko
plazan. Eguraldi txarra egi-
nez gero, musika saioa an-
tzokian izango da.

Pintura eta taila erakusketa

Gaur hasi, eta ekainaren 29a
bitarte, Patxi Epelde eta Mi-
kel Arozenaren ardurapean
egin diren pintura eta taila
ikastaroetan eginiko lanak
egongo dira Kultur etxean,
astelehenetik ostiralera,
17:00etatik 19:00etara.

Arantzadiren aurkezpena

Ekainaren 28an, 19:30ean,
Kultur etxean, Arantzadik
Aralarko mendi-errepidearen
berri emango du.

Bardeak bizikletan

Gailurrerantz Kirol Elkarte-
ko mendi sailak Bardeetara
irteera antolatu du ekainaren

30a eta uztailaren 1erako.
Larunbatean Zaldibitik atera,
eta igandean bizikletaz saioa
egin.

Arrantza lehiaketa haurrentzat

Gaztelu Ehiza eta Arrantza
elkartek 2001. urteko
Arrantza lehiaketa antolatu
du. Uztailaren 7an, larunba-
tean, Zentraleko presan, goi-
zeko 9etan.

San Joan gava

Hauxe da Alamartxo egune-
rako Udalaren eta zenbait he-
rritarren artean prestatu den
egitaraua: **19:00etan:** Herri-
ko txarangarekin kalejira.
19:30ean: Ardo barrika za-
balduko da. **21:00etan:** Herri
Afarria plazan Afalostean:
Alamartxoari su emango
zaio. **Ondoren:** "Zaldibia eta
zaldibitarak duela urte ba-
tzuk...1976, 1977, 1978..."
diapositiba emanaldia, ber-
tsoz eta musikaz girotuta.



Tel. eta Faxe: 943 886 558
Poltsikoko telefonoa: 616 698 288



- Pankartentzat errotulazio bereziak
- Fatxadako toldoak
- Motorizatuak eta automatikoak
- Estaldurak eta itxidurak
- Toldoak alokairuan
- Kamioientzako toldoak: Tir toldoak
- Toldo korredoren prestaketa
- Errotulazio eta inpresioa lonetan eta zurrunetan

ERAKUSKETA:
Lorategiko eta
terrazako altzariak,
kolore ezberdinetako
aluminio lakatuan

Zubi-Erreka Industrialdea, 42

LAZKAO

e-posta: auxkin@toldosagustin.euskalnet.net



Orkatz abesbatzarekin Europara

Udan Orkatz abesbatzak Europa erdialdera bidaia egingo du, uztailaren 28tik abuztuaren 12ra. Montecarlo, Monako, Genova, Milan, Innsbruck, Salzburgo, Viena, Praga, Nuremberg, Frankfurt eta Paris bisitatuko dituzte. Turismoa egiteaz gain, kontzertuak ere eskainiko dituzte. Bidaia irekia da, herritarrei ere zuzendua dago. Bazkide

eta laguntzaileen ondoren, izena ematearen ordena erresetatuko da. 90.000 pezeta kostatuko da garraioa, loa, afaria eta gosaria sartzen da prezioan. Interesatuak Arrate Igoarekin jarri harremanetan, 943801180, eta berak emango dizue informazio gehiago. Gaur, ekainak 22, bukatzen da izena emateko epea.

Eduarne Albizu

Jubilatuen eguna

Jubilatuen Eguna uztailaren 8an egingo dugu. 11:00etan txistularien izango dira. 12:00etan Meza, Orkatz abesbatzarekin. 14:00etan bazkaria bertsolari eta soinu-joleekin. Izena emateko egunak, ekainak 27- 28 6etatik 8etara Jubilatuen Elkartean.

Ikastaroa

'Adinekoekin laguntza erlazioa eta komunikazioa' gaitzat duen eta Amagoia Muruamendiaraz medikuak emango duen ikastaroan izena eman dutenentzat, jakinarazi nahi da: datorren ostegunean, ekainak 28, arratsaldeko 4,30etan, Udaletxean bilera izango dela, ikastaroaren ordua eta egunak finkatzeko.

Goimenekin elkarlanean

Goimen Elkartek 2000. urtean jasotako egitasmoetatik bat, Goierriko herri garapenari begira, bertan aurki daitezkeen natur ondareen berreskurapen eta babeserako 'Gune Botanikoa' izeneko proiektua proposatu zuen. 'Gune Botanikoa' bertako landaredian oinarritutako proiektu bat da eta naturan aurki daitezkeen gaitaz gain, gizakiak utzitako zenbait aztarna ere sartu daitezke. Honela, Zegaman besteen artean, Arrieta Haundi aldean goian aipatutako Gune Botaniko bat badagoela ikusirik, berau Gune Botaniko bezala ezagutaraztea erabaki da eta eremu horretan egokitze lanak aurreikusten dira bisitariei ibilbide alternatiboak eskainiz, zenbait panel informatibo eta foiletokin landuz. Gastuen % 65a Goimen Elkartetik egingo da eta Udalak gastuaren % 35a hartuko du bere gain.

Erakusketak

Asteburu honetan amaituko da hilabete honetan irekita izan dugun **Zaharkinak** erakusketa ikusteko aukera. Azken hiru aste hauetan 1.200 pertsonatik gora pasa dira udal pilotalekuan kokatuta dagoen erakusketa izugarri hau ikustera. San Joan Egunean itxiko ditu ateak eta hilaren 25etik aurrera berriro ere baserritar guztiei beraien materialak itzuliko zaizkie. Larunbata eta igandean, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo da irekita.



Bestalde **Kontxa Gorospek** bi asteburutarako Kultur Etxean jarri duen erakusketa ere San Joan Egunean bukatuko da. Bertan Zegamako etxe, kale eta paisaiak ditu ikusgai eta baita Segurako zenbait etxe eta kaleenak ere. Merezi du ikusteak. Ordutegiak: Ostiralean, 18:00etatik 21:00etara, larunbat eta igandean, 11:00etatik 14:30etara, eta 16:00etatik 20:00etara.

Pregoi lehiaketa

Kultur Etxetik III. Pregoi Lehiaketa antolatu da San Bartolomertarako. Hauek entregatzeko epea uztailaren 6an bukatuko da. Informazio gehiago 943 801351. (Eduarne)

Aizkorriko Lagunen Eguna

Datorren uztailaren 1ean ospatuko dugu Aizkorriko Lagunen II. Eguna. Aurten bi ibilbide izango ditugu. Bata goizeko 7etan abiatuko dena eta berau Aizkorriko puntaraino izango da bigarrena, berriz, goizeko 8etan abiatuko da, Zegamako plazatik Apeaderoraino autobusez egingo da eta handik San Adrianeraino izango da ibilaldia, han Aizkorritik buelta egin dutenekin elkartuz. Ondoren Meza eta hamaiketako izango da Zegamako Udalak eskainita, aurten ere hamaiketako banatu eta beste zenbait lanetarako herriko elkarteak laguntza paregabea izango da. Eduarne Pasaban eta Juanito Oiarzabal mendizaleei errekonozimendu sariak emango zaizkie bazkalondoren. Bazkarian parte hartzeko izena emateko azken eguna ekainak 25 da.

Amezti mendi elkartea Pirinioetara

Aurten ere Pirinioetara irteera antolatu dute Amezti mendi Elkartetik, uztailaren 14 eta 15ean. Formigal-Lagos del Anayet-Canfranc (Canal Royatik) ibilbidea egingo dute. 3.500 pezeta kostatuko da (afaria, lo egitea eta gosaria). Autobusa Amezti Mendi Elkartearen kontura. Izen ematea, uztailaren 10era arte (Alberti Aierbe 943 800160 edota 630113940).



GUK-LAN

Berogintza - Iturgintza - Gas

Tel.: 943 16 12 77 Faxa: 943 16 09 33
Okorro 6 - behea **ORDIZIA**

PSIKOLOGI KLINIKOA



Helduen,
umeen, bikoteen
eta sexologi
tratamenduak

Jose Ramon Pato Prieto

Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/95

AURRE ZITA

☎ 943 887 221

☎ 610 020 041

JM Arana, 1 - 2. esk. esk. **BEASAIN**

Debaldeko iragarkiak

Etxebizitzak

salgai

➡ Etxebizitza salgai Errioxan. Bi familientzako egokia. 943160428. Gauzez deitu.

➡ Ordizian ganbara salgai, berritua eta altzariekin. 943160930 - 687273126.

➡ Etxebizitza salgai Ordizian. 600704208.

errentan

➡ Jakan apartamentua alokatzen da udan. Igerilekuarekin. 943216684.

➡ Apartamentua alokatzen da Oropesa del Marren (Castellon). Ekaina eta uztai-lean hamabostaldi edo hilabete osoan. 943216918.

➡ Urbasako mendi-lerroan etxea alokatzen da. Nekazal gu-nea. Abuztuko bigarren hamabostaldia libre. 948539381.

konpartituak

➡ Ikasleekin etxea konpartitzen dugu Madrilen. 914595390.

Negozioak

errentan

➡ Martxan dagoen ileapaindegia alokatzen da. 606052907. Lan orduetan deitu.

Lurra

salgai

➡ Etxe bifamiliarra eraikitzeke partzela urbanizatua salgai Goierriko eskualdean, 656726548. 20:00etatik 22:00etara deitu.

Garajeak

errentan

➡ Garajea salgai Beasainen, herri erdian. 943027947.

Ibilgailuak

salgai

➡ Citroen ZX diesel salgai. SS-AU. Cd-a eta engantxea. 659511578. Enrike.

➡ Honda Civic salgai. 1,4 I 16 v. 94 urtekoa. 699630809.

➡ Peugeot 306, diesela, salgai. SS-AS. Garajea egona eta oso ondo zaindua. Prezio egokia. 943422535. 19:00etatik aurrera deitu.

➡ Renault 19 GTD salgai. SS-AK. Txuria. Ondo zaindua. 686476095.

➡ 7 lagunentzako auto-karabana salgai. 18 urte ditu. Bulego orduetan deitu. 943882695.

Bestelakoak

opari

➡ Txakurkumeak oparitzen dira. 699460975. Sandra.

salgai

➡ Gurdi-denda salgai. Sukaldea, 2 logela eta hozkailuarekin. Egoera onean. 150.000 pezeta. 943885923.

➡ Scantac 3C scanner salgai. 8.000 pezetan. 943882278.

➡ Errepideko txirridua, mailot eta guzti, salgai. 653747293.

➡ Olivetti idaz maki-na elektrikoa salgai. 20.000 pezeta. 943882278.

➡ Umeak eramateko motxila salgai. Berria. Vaude markakoa. 606217256.

➡ Negutegi edo inbernaderoak alokatzen dira. 943883157.

➡ Ohea egiten den tresillo bat, bi butaka eta egongelako mahaia saltzen dira. 670422051.

➡ Zeus bideko bizikleta salgai. Berri-berria. Koadroa 56koa. 943161803.

➡ Musika klasikoko bilduma salgai. 78 Cd. 630476054.

➡ Pertsona ezinduk mugitzeko garabia edo grua salgai. 943886834.

Lana

eskaerak

➡ Klinika laguntzaileak, garbitzaileak eta sukaldariak behar dira. Kurrikulumak helbide honetara bidali: Eulen. Esteban Lasa kalea, 2. Beasain.

➡ Etxeko lanak egin eta umea zaintzeko 24-30 urte arteko neska behar da. 943888182. 15:00etatik 16:30era deitu.

➡ Mezulariak behar ditu Goierriko mezulari-zerbitzu batek. 627496091.

➡ Pertsona euskalduna behar da Ormaizte- giko taberna batean lan egiteko. 943886577 - 943160205.

➡ Itsasondon entsaiatzen duen musika talde bat baxulari bila dabil. 943161591 (Lander). Gustuko musika: Korn, Eftones, Eraso, Dut.

eskaintzak

➡ Lazkaoko emakume bat prest dago etxeko lanak egin edo jatetxeren batean sukaldean aritzeko. 943880672.

➡ Haur hezkuntzako irakaslea naiz eta haurrak zainduko nituzke ekainaren 25etik uztai-laren 24ra. Arratsaldez eta asteburuetan. 606836651.



IKASTE AKADEMIA
Goierriko Akademia integrala
Joan Iturralde, 5 - 943 160 120
BEASAIN
ikastekakademia@latinmail.com

ERREKUPERAKETAK

- * Unibertsitate-maila
- * Batxilergoa
- * DBH
- * Selektibitatea

TAILERRAK

- * Ortografia
- * Irakurmene - idazmene
- * Kalkulua, logika
- * Testu komentaketa

ESKOLA LAGUNTZA

- * Maila eta arlo guztietan
- * Banakako laguntza etxean

Presta zaitetz gurekin Goierriko Ingeniaritza Eskolan sartzeko!
Etorri informaz ioa jasotzera!

OSTEOPATIA

Jose Gisasola Dr. R.P.S. 213/97

- LUNBAGO, ZIATIKA, HERNIA DISKAL
- ZERBIKALGIA, ZEFALEA, MIGRAINA, ARTROSIS.
- TENDINITIS, KIROL LESIOAK.

Eskatu ordue: ☎ 629 45 20 53
Andra Mari, 13 behea ez. - BEASAIN



Zinea aire librean, udako gau epeletan

Kilometroak 2001en hurrengo ekintza hauxe dugu. Ekainaren 29tik uztailearen 20ra, ostiralero, gaueko 10,30etan zinea ikusteko aukera izango da Beasaingo auzo ezberdinetan. Euskarazko zinea.

Udako gau epeletan, lau film, lau kokaleku ezberdinetan. Horixe duzue ekainaren 29tik aurrera, ostiralean, Beasainen egin daitekeen plana. Kilometroak 2001ek ema-

ten dizu horretarako aukera.

Lau film aukeratu dituzte Kilometroak 2001ekoek. Aire libreko lau kokaleku ere bai. Beasaingo auzo ezberdinetara iritsiko da Kilometroak 2001.

Euskarazko filmak izango dira lauak. Adin guztietarako egokiak. Lerro hauek idazterakoan, filmak zehaztu gabe zeuden baina beste komunikabideetan izango duzue berri zehatzagoa. Dohainik izango dira zine ikuskitzak. Ondoko koardoan duzue egun, ordu eta tokiak.

Ekainak 29: Gernika Pasealekuko (Pergolak) pilotalekuan, 10,30etan.

Uztailak 6: Ezkiaga auzoko pilotalekuan, 10,30etan.

Uztailak 13: Dolareako parkean, 10,30etan.

Uztailak 20: Gernika Pasealekuko (Pergolak) pilotalekuan, 10,30etan.

Egun hauetan euria egingo balu, Gernika Pasealekuan eta Dolarea parkean izan beharreko emanaldia Loinazko San Martin plazaren azpian izango da.

100 egun egun handirako

Zehazki esateko, 108 egun falta dira Kilometroak 2001 Beasainen ospatzeko. Urriak 7 gero eta gertuago dago. Orain arteko lanez gain, egunari dagozkion lanak pilatzen ari dira eta gero eta jende gehiago behar da lanerako. Guztion beharra dauka Kilometroak 2001ek. Beraz, zure laguntza, era batera edo bestera, bakoitzak ahal duen neurrian, Beasaingo Ikastolakoei eskaini nahi badiezu, 943164177 telefonora deitu eta zure izen-abizenak eman.

Era ezberdinetara eman diezaikezu laguntza Beasaingo Ikastolari: jantziak erosiz edota eta saltzen lagunduz. Mazda Premacy autoaren zozketako errifak erosiz edo salduz; talde ezberdinetan izena emanaz; antolatutako ekitaldietan parte hartuz... Kilometroak, Ikastolak eta euskarak zure laguntza behar baitu.

Web orria

Kilometroak 2001-i buruzko informazio zabala, www.kilometroak.com web orrian duzue.



Kilometroak 2001 ardoa salgai

Kilometroak 2001 etiketa daraman ardoa salgai dago. Tabernetan baso erdiak har ditzakezue. Gustukoa izan eta etxerako botilak erosi nahi izanez gero, aukera ere badago. Kilometroak-ek duen bulegora joan eta hantxe jasoko duzue informazioa. 943164177. Arabar Errioxako ardoa da, urtekoa, beltza.



Andramendi. Beasaingo Ikastola, Urbialde 2 z/g. 20200 Beasain.
E-posta: beasain@ikastola.net



Tel/fax 943 88 96 17



Segura'ko gazteak
mendi garbiketan
27 - 9 - 59

Segurako gazteak mendi garbiketan, 1959an

Santa Barbara inguruko pinudiak garbitzen aritu ziren argazkiko gazteak.

Goiko ilaran, ezkerretik eskuinera: Ezezaguna, Inaxio Ugalde, ezezaguna, Joxe Mari Ormazabal, Joxe Alustiza, ezezaguna, Joxe Mendizabal, Joxe Agirre, Xabier Aldanondo, Marzelino Aldanondo, Xanti Arrue eta Pedro Miel Imaz.

Beheko ilaran: Gregorio Izagirre, Xabiñ Aldanondo, Juan Mari Ariztimuño, Iñazito Etxeberria, Joxe Mari Alustiza, Laureano Telleria, Xeberiano Aristimuño, Julian Arrondo, Patxi Imaz, J. Makazaga, Inazio Ugalde, Inazio Legorburu eta Xanti Zabaleta.

Aurrean: Karmelo Gabilondo.



OTATZA DOLARE SAGARDOTEGIA

Uda garaian erretegi moduan ere
zabalik, terraza eta guzti

Zatoz probatzera!

Ostiral, larunbat eta igande eguerdietan zabalik

☎ 943 80 17 57 ZERAIN



Iñautsi
HORTZ KLINIKA

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO
602 Zbki. KOLEGIATUA

RADIOGRAFI PANORAMIKO ETA ZEFALOMETRIAK
ODONTOLOGIA OROKORRA: HAUR ETA HELDUAK

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN ☎ 943 88 46 28



amatriain

f r u t a k

Jai zoriontsuak denoi!

Tel.: 943 80 11 77

Zurbano kalea 22, beheka

SEGURA



Azken etxebizitzak!

HERRI ERDIAN

- ✕ 2 logela, egongela, sukaldea, jangela, bainugela 17.500.000 pezetatik hasita.
- ✕ Duplexa: 4 logela, egongela, sukaldea-jangela, 2 bainugela 23.000.000 pezetatik hasita.
- ✕ Garaje itxiak aparte 2.100.000 pezetatik hasita.

ERAGIN S.L. inmobiliaria Tel.: 943 474699 - 609 40 30 81
Marina Kalea, 10 - 1.F DONOSTIA

PVC ETA ALUMINIOZKO LEIHO ISOLATZAILEAK

ZERBITZUA - KALITATEA - BERMEA

BRINKOLA



PVC eta aluminiozko leihoetan nahi adina aukera, baita egur tonuak imitatzen dituztenak ere
AENOR ziurtagiria, MAPFRE aseguru eta PERFET 10 bermea ditugu: lan onaren bereizle argiak

Tailerra: Legazpi-Zumarraga errepidea z/g
☎ 943 73 37 00

Denda: Artiz kalea (Orbegozoko aldapan)
☎ 943 72 64 53 ZUMARRAGA



UDA HAU ERE ANTZIZAR KIROLDEGIAN FRESKATU EZAZU

AUKERA FRESKAGARRIENA - KIROLA ETA JOLASA



BEASAINGO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gaztería eta Kirol Departamentua
Departamento de Juventud y Deporte



ANTZIZAR
KIROLDEGIA